

I. ERANSKINA

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA ETA HAREN ERAKUNDE  
AUTONOMOAK: EGUTEGI OROKORRA ETA ORDUTEGIA  
BETETZEKO ARAUTEGIA

- 2019. URTEA -



## AURKIBIDEA

### **1. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomiadunen egutegi orokorra, 2019. urtea.**

#### 1.1. Lanaldi motak

- 1.1.1. Lanaldi etengabea
- 1.1.2. Lanaldi zatitua

### **2. Ordutegia betetzeko arautegia**

#### 2.1. Ordutegia betetzeko arautegia

- 2.1.1. Malgutasun-mugak aldatzea
- 2.1.2. Lanaldi erdiko etena
- 2.1.3. Fitxaketa
  - 2.1.3.1. Lanaldi etengabea duten langileak
  - 2.1.3.2. Lanaldi etengabea duten eta asteko arratsalde batean lan egiten duten langileak
  - 2.1.3.3. Arduraldi eskusiboa duten langileak
- 2.1.4. Lanaldiko atsedena
- 2.1.5. Bajarik gabeko gaixotasuna
- 2.1.6. Ahaideen gaixotasun larriaren ondoriozko lizentzia
- 2.1.7. Benetako lana
- 2.1.8. Kontentsazioa
- 2.1.9. Justifikazioa
- 2.1.10. Baimendutako ikastaroetara joatearen ziozko ordu libreak
- 2.1.11. Euskara ikastaroetara joateagatik ordu libreak
- 2.1.12. Lantik-en ikastaroetara eta derrigorrezko prestakuntza-ikastaroetara joatea lanorduetan
- 2.1.13. Derrigorrezko prestakuntza-ikastaroetara joatea lanorduetatik kanpo
- 2.1.14. Bularra emateko lizentzia
- 2.1.15. 2.1.15. Norberaren gaietarako lizentzia
- 2.1.16. Gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senideak zaintzeko lizentzia
- 2.1.17. Ohiko etxebizitza aldatzeko lizentzia
- 2.1.18. Lanaldi murriztuan lantokian nahitaez egon beharreko denbora
- 2.1.19. Arratsaldeak eta/edo larunbateak
- 2.1.20. Ordutegi-aldaketak
- 2.1.21. Lanaldi murriztua metatzea
- 2.1.22. Minbizia edo beste gaixotasun larriren bat duen seme-alaba adingabea edo senidea zaintzeko baimena
- 2.1.23. Lanuzte edo greba egunak arautzea
- 2.1.24. Hiru hilean behin seme-alaben irakasleek antolatutako bilerara joateko lizentzia
- 2.1.25. Interes partikularren zioz hartutako lanaldi murriztuaren arautzea.

#### 2.2. Arauzko oporrak hartzeko irizpideak

#### 2.3. Aste Santuko eta Gabonetako baimenak hartzeko irizpideak

#### 2.4. Antzintasuna dela-eta zuzemen pertsonaletarako baimena hartzeko irizpideak.

#### 2.5. Zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimena hartzeko irizpideak

#### 2.6. Zuzemen pertsonalak bideratzeko baimena hartzeko irizpideak



## 1. BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGUTEGI OROKORRA

- 2019. URTEA -

### 1. URTEKO ORDU KOPURUA

2019ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko egunak sartzen dira egutegi honetan, bi egun horiek barne.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen 2019ko ordutegia, batez beste, asteko 37 ordu eta 30 minutu izango da, bost lanegun dituzten asteetan; beraz, eguneko lanaldia 7 ordu eta 30 minutu izango da batez beste.

**Eguneko 7 ordu eta 30 minutuko lanaldia ezarri den egutegiari erreferentziako egutegi normalizatua deituko diogu.**

Astean edo urtean zehar irregularrak diren egutegiek erreferentziako egutegi normalizatuan ezarritako urteko ordu kopuru bera izango dute.

Urteko lanordu kopurua bat ez badator erreferentziako egutegi normalizatuan ezarritako kopuruarekin, aldea berreskuratu edo konpentsatu egingo da, benetako lanordu kopurua bete arte.

Lanorduak berreskuratu behar badira, horrek zuzeneko isla izango du atal honetan: "Egutegiagatik defektua" atalean, "Oporren, Aste Santuko eta Gabonetako baimenen eta antzinasun-egunen ondoriozko egun libreen defektuaren kontrola" atalaren barruan.

Konpentsazioaren kasuan, urteko ezarritako lanorduak baino gehiago egiten badira, orduok zuzenean sartuko dira zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimenaren ordu-poltsan.

Lanaren berezitasunengatik eta/edo txandaka lan egiteagatik egutegi berezia duten langileek ere erreferentziako egutegi normalizatuan ezartzen den benetako lanordu kopuru bera izango dute 2019. urtean.

Gainerako egutegietan, ordu-poltsa egokituko da benetan lan egindako orduan kopurua erreferentziako egutegi normalizatuan jasotako bera izan dadin, salbu eta egutegian



orduak banatzean 2019ko egutegiak 2013koak beste ordu baditu, kasu horretan hasieratik egokituta egongo baita egutegia.

Zerbitzua ez bada urte osoan eta/edo lanaldi osoan ematen, doitzen diren orduen kopurua proportzionala izango da.

Hauek izango dira urteko *jaiegunak*:

- EAEko hamabi egun ofizialak:

- urtarrilaren 1a
- urtarrilaren 6a
- martxoaren 19a
- apirilaren 18a
- apirilaren 19a
- apirilaren 22a
- maiatzaren 1a
- uztailaren 25a
- abuztuaren 15a
- urriaren 12a
- azaroaren 1a
- abenduaren 6a
- abenduaren 8a
- abenduaren 25a

- Bizkaian jaieguntzat hartutako biak:

- uztailaren 31
- Lantokia kokatzen den udalerriko jaia.

Daukaten egutegi modalitatea dela-eta **abenduaren 24an eta 31n** lan egin beharra daukaten langileen kasuan, baldin eta bi egun horietako batean benetan lan egiten badute, bada, orduan, egun horiek «jaieguntzat» joko dira ordainsari edo konpentsazioen ondorioetarako.

## 1.1. Lanaldi motak.

Bi lanaldi mota daude langileentzat:

- A)** Lanaldi etengabea, arduraldi bereziko lanpostua ez duten langileentzat.
- B)** Lanaldi zatitua, arduraldi bereziko lanpostua duten langileentzat.

### 1.1.1. Lanaldi etengabea



Lanaldi etengabea betetzeko hainbat modalitate daude, hain zuzen ere, honako hauek:

### **1.- ASTEAN ARRATSALDE BATEAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEENTZAT.**

Astean arratsalde batean lan egiten duten langileek honako egutegi hau bete behar dute:

#### **A) Urtarrilaren 1etik ekainaren 10era eta irailaren 17tik abenduaren 31ra:**

**\* 7 ordu eta 15 minutuko lanaldia** bete behar da egunean. Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta irteera, berriz, sarrera-orduaren arabera egin behar da.

08:30etik 14:00etara bitartean nahitaez egon behar da lanean.

Eguneko lanaldia **15:45 baino lehen** bete behar da.

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokionez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

**\* 32 lan-arratsalde, 20:00ak baino lehen egin beharrekoak.**

Arratsalde horietan gutxienez 1 ordu eta 30 minutuko lanaldia egin behar da, 15:30etik eta 19:00etara bitartean, eta gainerako denbora malgutasun-tarteen barruan kita daiteke.

Neguko lanaldian, goizez eta arratsaldez lan egin behar den eguneko lanaldia 10 ordu eta 30 minutukoa izango da.

Eguneko lanaldia 20:00ak baino lehen bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

#### **B) Ekainaren 11tik irailaren 16ra:**

**Egunero, astelehenetik ostiralera, 6 orduko lanaldia** bete behar da. Sartzeko, 07:45etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta irteera, berriz, sarrera-orduaren arabera egin behar da.

08:30etik 13:45era bitartean nahitaez egon behar da lanean.

Eguneko lanaldia **14:30 baino lehen** bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

**\* Langile hauek lau (4) egun libreko baimena izango dute Aste Santuan, eta lau (4) egun libreko baimena, Gabonetan.**



## 2.- GOIZEZ BAKARRIK LAN EGITEN DUTEN LANGILEENTZAT.

Goizez bakarrik lan egiten duten langileek honako egutegi hau bete behar dute:

### I. MODALITATEA

#### *A) Urtarrilaren 1etik ekainaren 10era eta irailaren 24tik abenduaren 31ra:*

\* **Egunero, astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 33 minutuko lanaldia** bete behar da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta **08:30etik 14:00etara bitartean nahitaez egon behar da lanean.**

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokienez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

Eguneko lanaldia **16:03 baino lehen** bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

#### *B) Ekainaren 11tik irailaren 23ra:*

\* **Egunero, astelehenetik ostiralera, 7 orduko lanaldia** bete behar da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta **08:30etik 14:00etara bitartean nahitaez egon behar da lanean.**

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokienez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

Eguneko lanaldia **15:30 baino lehen** bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

\* Langile hauek hiru (3) egun libreko baimena izango dute Aste Santuan, eta hiru (3) egun libreko baimena, Gabonetan.

### II. MODALITATEA

Hauxe da gorago «erreferentziako egutegi normalizatua» izendatu duguna.



Urte osoan, astelehenetik ostiralera, 7 ordu eta 30 minutuko lanaldia bete behar da, egunero. Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta irteera, berriz, sarrera-orduaren arabera egin behar da.

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokionez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

**08:30etik 14:00etara bitartean nahitaez egon behar da lanean.**

Eguneko lanaldia **16:00 baino lehen** bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

**\* Langile hauek lau (4) egun libreko baimena izango dute Aste Santuan, eta lau (4) egun libre Gabonetan.**

### 1.1.2. Lanaldi zatitua (arduraldi eskusiboa)

Arduraldi bereziko lanpostuetan aritzen diren langileen lanaldi zatitua honela beteko da:

#### ***A) Urtarrilaren 1etik maiatzaren 31ra eta urriaren 1etik abenduaren 31ra:***

**\* 8 ordu eta 20 minutuko lanaldia, astelehenetik ostegunera.**

Lanaldia **goizez eta arratsaldez** beteko da:

**6 ordu teorikoko lanaldia** egin behar da **goizean**. Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta 08:30etik 14:00etara bitartean **nahitaez egon behar da lanean**.

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokionez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

**2 ordu eta 20 minutu teorikoko lanaldia** egin behar da **arratsaldean**, 15:30etik 19:00etara bitartean. Lanean **nahitaez** egon beharreko denbora **ordu 1 eta 30 minutu** da.

Gainera, langile hauek asteko hiru arratsaldetarako (astelehenetik ostegunera) soilik aukeratu ahal izango dute «arratsaldez nahitaez lanean egon beharra» ezartzen duten egutegiko 4 modalitateetako bat.

Eguneko lanaldia 21:00ak baino lehen bete behar da.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.



**\* Ostiraletan, 7 orduko lanaldia bete behar da.** Sartzeko, 07:30etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta irteera, berriz, sarrera-orduaren arabera egin behar da.

Hala ere, lantoki batzuetan egunero sartzeko malgutasun-tartea, astelehenetik ostiralera, bestelakoa izango da, lantokiaren funtzionamenduak —zentroa ireki eta ixteari dagokionez— horretarako aukera ematen badu. Tartea honako hau izango da: 7:20tik 8:30era.

**08:30etik 14:00etara bitartean nahitaez egon behar da lanean.**

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

### ***B) Ekainaren 1etik irailaren 30era:***

**\* 6 orduko lanaldia** bete behar da egunero. Sartzeko, 07:45etik 08:30era arteko malgutasuna dago, eta irteera, berriz, 13:45etik 14:30era bitartean izango da. Nahitaez egon behar da lantokian 08:30etik 13:45era bitartean.

Ezarritako mugetatik kanpo egindakoa ez da kontuan hartuko lanaldia betetzeari dagokionez.

**\* Langile hauek lau (4) egun libreko baimena izango dute Aste Santuan, eta lau (4) egun libreko baimena, Gabonetan.**

Egutegi berezia duten Bizkaiko Foru Aldundiko langileek eta GUFeko langileek, urteko lanorduak betetzeko duten moduagatik, ez daukate aukerarik Aste Santuko eta Gabonetako baimenak hartzeko; hortaz, langileok 2019ko urtarrilaren 7ra arte luzatu ahal izango dute 2019. urteko arauzko oporrak hartzeko garaia, baldin eta hala egiteak ez badakar egutegi orokorrean Gabonetarako ezarritako baimen bietako egun guztiak libre hartzea.





## 2.- ORDUTEGIA BETETZEKO ARAUTEGIA - 2019. URTEA -

### 2.1.-ORDUTEGIA BETETZEKO ARAUTEGIA

Foru Aldundian eta haren erakunde autonomoetan 2019. urtean ordutegia betetzeko arautegia ezartzea da arau honen xedea.

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Antolaketa Zerbitzuari dagokio kontrolaren ardura, eta zerbitzu horrek sail bakoitzeko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzuari eskuordetzen dio eginkizun hori, osorik edo partez. Azken zerbitzu hori da, beraz, sor litezkeen zalantza guztiak argitzeko kontsulta-unitatea.

Hala ere, administrazio-unitate bakoitzeko arduradunak du haren menpeko langileak lanera agertzen direla kontrolatzeko ardura; beraz, tratamendu egokia emango die langile horien absentziei eta langileok lanera garaiz iristen ez diren eta lantokian ez dauden kasuei. Gainera, inguruabar horien guztien berri eman behar dio langileen arloan eskuduna den organoari, ez dadin gertatu langilea arrazoi nahikorik gabe lanera ez agertzearen ondorioz absentzia horrek unitateko lan-giroan eragina izatea.

Horretarako, Antolaketa Zerbitzuak, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak eskatuta, Zerbitzuari agindutako eginkizuna benetan betetzeko egokitzat jotzen dituen neurriak har ditzake.

Bestalde, foru enplegatu bakoitzaren ardura da egutegia betetzean gertaturiko irregulartasun guztiak zurrizko espedienteak izapidetzea, horretarako ezarrita dauden epeen barruan, eta kasu bakoitzean eskatzen diren agiriak erantsi behar dizkie espediente horiei.

Berdin jokatu da honako hauek hartzeko (horretarako ezarritako egunetan) egindako eskaerei dagokienez: arauzko oporrak, Aste Santuko eta Gabonetako baimenak, norberaren gaien ziozko eta zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimenak eta antzinatasunaren ondorioz zuzemen pertsonalak bideratzeko baimenak.

Oro har, aitortutako eskubideetan oinarriturik ematen diren lizentziek lanaldi teorikoa hartzeko bestekoak izango dira lanaldi jarraituaren kasuan, eta, lanaldi zatitua bada, goizeko lanaldi teorikoa edo arratsaldeko lanaldi teorikoa hartzeko bestekoak (kasuaren arabera); edonola ere, nahitaezko presentzia bermatuko da, justifikatuta badago.

#### 2.1.1.- MALGUTASUN-MUGAK ALDATZEA.-



Derrigorrezko presentzia-orduen mugak **ordubete (1) arte** atzeratu daitezke hamasei (16) urtetik beherako seme-alabak dituzten langileen kasuan, espresuki eskatuz gero, baldin eta muga atzeratzearekin ez bazaio kalterik egiten interes publikoari. Aukera hau erabiltzeko, jatorrizko ordutegiari dagokion nahitaezko lan-denbora hasi eta gero sartu behar da lanera.

Aukera bi egongo dira; eskaera egiten denean bietako bat aukeratu beharko da:

- 1.- Lanaldiaren hasiera edo amaierako mugak, goizekoak zein arratsaldekoak, ordubete atzeratzea.
- 2.- Goizeko lanaldiaren hasierako edo amaierako mugak ordubete atzeratzea.

Ordutegi-malgutasun honetaz gozatzeko aukera egongo da harik eta seme-alabak hamasei (16) urte betetzen dituen ikasturtea amaitu arte.

Ordutegi-malgutasunaren eskaera zerbitzuaren beharrianen pean dago, eta gehienez ere urtebete baino handiagoa izan ezin daitekeen aldi oso baterako egin daiteke, edo, bestela, puntualki, egun jakin batzuetarako. Azken kasu horretan, nahikoa izango da dagokion espedientea izapidetzea, eta hortxe adieraztea zein egun zehatzetarako eskatu nahi den “malgutasun-mugak” aldatzea.

Horretarako izapideak erraztearren, eskatzaileak 16 urtetik beherako seme-alabaren bat duela egiaztatzen duen agiria bakarrik aurkeztu beharko da eskaera lehen aldiz egiten denean.

Langileek irteera-ordua aurreratzea dakarten aldaketak eskatzen dituzten kasuetarako, betiere horrek interes publikoari kalte egiten ez badio, dauden ordutegi motak hain ugariak izanik, honako irizpide hauek ezarri dira:

- “Goizez eta arratsalde bat” egutegi-motetariko bat aukeratuta duten langileek ordubete (1) aurreratu ahal izango dute irteera asteko egun batean, lanaldiaren derrigorrezko presentzia-aldian muga gisa ezarritako orduari dagokionez.
- “Goizez bakarrik” egutegi-motetariko bat aukeratuta duten langileek ordubete (1) aurreratu ahal izango dute irteera asteko egun batean, lanaldiaren derrigorrezko presentzia-aldian muga gisa ezarritako orduari dagokionez.
- “Arduraldi berezia” egutegi-motetariko bat aukeratuta duten langileek ordubete (1) aurreratu ahal izango dute irteera asteko egun batean, lanaldiaren derrigorrezko presentzia-aldian muga gisa ezarritako orduari dagokionez.

Aurreko hiru kasuetan adierazten den bezala, irteera-ordua ordubete aurreratzeko aukerak esan nahi du eguneko ordutegian irteteko ordua gehienez ere ordubete aurreratu daitekeela. Hau da, aurreratze hori ezin izango da erabili ordutegi horretan irteteko gutxieneko mugatik gorako absentziak justifikatzeko.

Ezingo dira batera hartu norberaren gaien ziozko lizentzia eta irteteko malgutasuna; izan ere, malgutasun hori onartzeko, lantokitik benetan irten behar da, aurreko lerrokadetan aipatutako mugen barruan.



Bestalde, Gizarte Ekintza Saileko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuaren arabera desgaitasuna duten langileek, mugikortasun-mugak badituzte, malgutasuna izango dute sartzeko orduan, goizeko hamarrek (10) arte.

Halaber, ezin da egun berean gozatu "sarrerako" eta "irteerako" malgutasunez.

### **2.1.2.- LANALDIEN ARTEKO ETENA.-**

Lanaldi zatitua duten langileek eta lanaldi etengabea izanik asteko arratsalde batean lan egiten dutenek, arratsaldez lan egiten duten egunean, gutxienez 30 minutuko eten edo geldiunea egin behar dute goizeko eta arratsaldeko lanaldien artean.

### **2.13.- FITXAKETA.-**

#### **2.1.3.1.-Lanaldi etengabea duten langileak.-**

Gutxienez egunean birritan fitxatu behar dute (sarrera/irteera), egutegi modalitate honetarako ezarrita dauden malgutasun-mugen arabera betiere. Langile hauei dagokienez, fitxaketak ez egitea ordutegia ez betetzea izango da, eta egoera hori justifikazio-espedientearen bidez bakarrik zuritu daiteke.

#### **2.1.3.2.-Lanaldi etengabea duten eta asteko arratsalde batean lan egiten duten langileak.-**

- **Goizez bakarrik lan egiten duten egunetan.-**

Gutxienez egunean birritan fitxatu behar dute (sarrera/irteera), egutegi modalitate honetarako ezarrita dauden malgutasun-mugen arabera betiere.

Langile hauei dagokienez, fitxaketak ez egitea ordutegia ez betetzea izango da, eta egoera hori justifikazio-espedientearen bidez bakarrik zuritu daiteke.

- **Goizez eta arratsaldez lan egiten duten egunetan.-**

Gutxienez lau fitxaketa egin behar dituzten egunean (goizeko sarrera-irteera eta arratsaldeko sarrera-irteera). Langile hauei dagokienez, lau fitxaketak ez egitea ordutegia ez betetzea izango da, eta egoera hori gorabehera-fitxa baten bidez bakarrik zuritu daiteke.

Tarteko bi fitxaketak falta badira (goizeko irteerako eta arratsaldeko sarrerakoa), egun horretan, **"lan egindako orduak = 0"** izango dira. Egoera hori zurituzko, zuzeneko arduradunaren txostena beharko da, zer gertatu den azaltzeko eta lan egindako denboraren mugak zehazteko.

Ez dira onartuko ondoz ondoko bi fitxaketa ahaztu izana arrazoi gisa erabiltzen duten bestelako espedienteak.



### **\* Bazkaltzeko etenik egiten ez denean erabili beharreko irizpideak**

- ◆ *Bi fitxaketaren arteko lanaldia "goizeko lanaldi"tzat joko da, baldin eta lehenengo fitxaketa egutegi modalitate horretan lanera sartzeko ezarri diren malgutasun-tarteen barruan egiten bada, eta, irteerako fitxaketa, berriz, 15:45 baino lehen.*
- ◆ *Lehenengo fitxaketa "goizeko lanaldia"ren barruan egin bada eta **irteerako fitxaketa 15:45 baino geroago**, orduan bigarren fitxaketa hori "arratsaldeko lanaldiko" irteerari dagokiola joko da, eta, hala, tarteko bi fitxaketak faltako dira. Horrekin lotuta goraxeago ezarritakoaren arabera, "lan egindako orduak = 0" izango lirateke.*

### **2.1.3.3.-Arduraldi eskusiboa duten langileak.-**

Neguko lanaldian, astelehenetik ostegunera, egunean gutxienez lau fitxaketa (goizeko sarrera-irteera eta arratsaldeko sarrera-irteera) egin behar dituzte langileok, arratsalde nahitaez lanean egon behar ez duten egunean izan ezik, baldin eta astean hiru arratsalde egitea ezartzen duten lau modalitateetako bat aukeratzen badute. Horrelakoetan, nahikoak izango dira goizeko sarrerako eta irteerako fitxaketak.

Langile hauei dagokienez, fitxaketak ez egitea ordutegia ez betetzea izango da, eta egoera hori justifikazio-espedientearen bidez bakarrik zuritu daiteke.

Tarteko bi fitxaketak falta badira (goizeko irteerako eta arratsaldeko sarrerakoa), egun horretan, "lan egindako orduak = 0" izango dira.

Egoera hori zuzitzeko, zuzeneko arduradunaren txostena beharko da, zer gertatu den azaltzeko eta lan egindako denboraren mugak zehazteko.

Ez dira onartuko ondoz ondoko bi fitxaketa ahaztu izana arrazoi gisa erabiltzen duten bestelako espedienteak.

### **\* Bazkaltzeko etenik egiten ez denean erabili beharreko irizpideak**

- ◆ *Bi fitxaketaren arteko lanaldia "goizeko lanaldi"tzat joko da, baldin eta lehenengo fitxaketa egutegi modalitate horretan lanera sartzeko ezarri diren malgutasun-tarteen barruan egiten bada, eta, irteerako fitxaketa, berriz, 15:20 baino lehen. Lanean egindako denbora izango da bi fitxaketen artean igarotako denbora.*
- ◆ *Lehenengo fitxaketa "goizeko lanaldia"ren barruan egin bada eta **irteerako fitxaketa 15:20 baino geroago**, orduan bigarren fitxaketa hori "arratsaldeko lanaldiko" irteerari dagokiola joko da. Beraz, tarteko bi fitxaketak faltako lirateke. Horrekin lotuta goraxeago ezarritakoaren arabera, "lan egindako orduak = 0" izango lirateke.*

Arratsaldez derrigorrezko presentzia ez duten jardunaldietan arratsaldez lan egiten bada, hau da, 15:20tik aurrera lan egiten bada, derrigorrezkoa izango da bazkaltzeko etenaldi bat egitea, gutxienez ere hogeita hamar (30) minutukoa.



Funtzio Publikoari buruzko Legearen 84. artikulua n) letraren arabera, hutsegite larritzat joko dira ordutegi-kontrolako sistemak saihesteko xedea duten ekintzak edo omisioak, edo eta lanaldia bidezko arrazoirik gabe bete ez izana antzeman dadin eragoztekoak; esate baterako, beste inoren fitxaketak egitea edo eguerdian irteerako fitxaketa baten itxurak egin eta, gero, handik laster, lantokitik ateratzean, arratsaldeko sarrerako fitxaketa egitea.

Lan-arrazoiren batengatik —ikastaroren batera joateko, medikuaren kontsultara joateko, etab.— lantokitik irten beharra izanez gero, irteera eta sarrerako fitxaketak egin behar dira horren berri emateko, enplegatua atxikita dagoen Zerbitzuak fitxaketak ez egiteko beren-beregiko baimena duenean izan ezik, Antolaketa Zerbitzuak edo, GUFeren kasuan, Gerentziak emandakoa.

Egutegi modalitate guztietan, “fitxatzea ahaztea” edo “txartela ahaztea” arrazoiengatik egin ez diren fitxaketak zurrizko espedienteen jarraipena egingo da.

Langileek zurrizko horiek behar baino gehiago erabiltzen dituztela egiaztatzen bada, ohartarazi egingo zaie, fitxaketekin kontu handiagoz ibil daitezten. Egoerak bere horretan badirau, beharrezko neurriak hartuko dira.

Tornuak dituzten lantokietan lan egiten duten langileen kasuan ez dira onartuko ez da onartuko espedienterik “P15010-“Ez egindako fitxaketen justifikazioa” prozeduraren barruko aukera hauetan: “Txartela ahaztu”, “Fitxatzea ahaztu”, “Txartela galdu” edo “Txartela matxuratua edo tramitatzen”, kasu horietan segurtasuneko langileek beste txartel bat emango dutelako. Txartel horrek norberaren txartelaren antzeko funtzionamendua du.

Geratzen den aukera bakarra “Erlojua ez dabil” da; baina, bakar-bakarrik erabili ahal izango da sartzeko tornu guztiak zuzen ez badabilta. Segurtasuneko langileek egoera hori erregistroan jasoko dute, langile-zenbakia adierazita.

Tornu automatikoa duten zentroetan ezin da fitxaketarik aldatu, eta inola ere ez deuseztatu. Tornurik ez duten zentroetako erlojuetan egindako fitxaketak bakarrik deuseztatu ahal izango dira.

#### 2.1.4.- LANALDIKO ATSEDENALDIA

Oro har, eguneko lanaldian gehienez ere berrogeita hamabost (45) minutuko atsedenaldua egin ahal izango da, 9:00etatik 13:00etara bitartean, dagokien egutegian espezifikoki bestela jasota daukaten ordutegi berezietan izan ezik.

Denbora tarte horretan, atsedenaldirako **hogeita hamar (30) minutu** hartuko dira benetako lan-denboratzat gehienez. Atsedenaldirako **hogeita hamar (30) minutu baino gehiago** eginez gero, hurrengo **hamabost (15) minutuak** "berreskuratu beharreko denbora" izango dira.



Tarte horietatik kanpo, lantokitik kanpo ematen den denbora absentziazat joko da dagokion egutegian nahitaez lanean egon behar dela ezarrita badago.

Edonola ere, ordutegi irekia duten langileek, hots, derrigorrezko presentziarik gabekoa dutenek, gutxienez ordubete lan egin beharko dute atsedenaldirik itzultzen direnean.

Kontzeptu hori dela-eta irteera bat baino gehiago egin ahal izango da, eta mugak irteera guztien baturari aplikatuko zaizkio. Bestela esanda, atsedenaldirako denbora hainbat alditan hartu ahal izango da, baina aldi horien baturak inola ere ezin izango du gainditu 45 minutuen muga; aldi horiek, betiere, goian adierazitako tartearen barruan hartu behar dira.

Lanaldiko atsedenaldia aintzat hartzeko, lantokitik irteteko fitxaketa bat eta hari dagokion sarrerako fitxaketa egin behar dira derrigorrezko presentzia-aldi beraren barruan, eta fitxaketa horiek "benetan eginak" izan behar dute, edo, bestela, lana, baimendutako ikastaroak edo kontsulta medikoak direla-eta ez egotearen justifikazio bat egon behar da atsedenaldiaren ostean.

Fitxaketak egiteko fitxatzeko erlojuak dituzten foru eraikinetan lan egiten duten langileei gogorarazten zaie irteera eta sarrera guztiak fitxatu behar dituztela, atsedenaldirakoak barne.

#### **2.1.5.- BAJARIK GABEKO GAIXOTASUNAK.-**

**Medikuaren bazarik behar ez duen gaixotasun batengatik lanera ez joatea zurrizko, espediente izapidetu behar da. Espediente horri parte medikoa erantsiko zaio, eta bertan argi eta garbi adierazi behar da medikuak gaixotasunaren iraupenari buruz egindako aurreikuspena (egun bat, bi edo hiru).**

Baimendutako ondoz ondoko hiru egun natural horiek gainditzen baditu, langileak baja eskatuko dio organo eskudunari; hori egin ezean, absentzia justifikatu gabe geratuko da. Baja eskatzen badu, absentziaren lehen egunari dagokion data izan behar du bajak; ondorioz, aurreko kodeak ezabatu ahal izango dira.

Hiruhileko bakoitzeko, bazarik gabeko gaixotasunagatik lan absentziak justifikatzeko hiru egun egongo dira. Arrazoi hori dela-eta urtean guztira dagoen egun kopura gainditzen denean, interesdunaren absentismoaren portzentajea aztertuko da:

- % 100 ordainduko da, baldin eta absentzia hasi aurreko urtean langileak izan duen bazarik gabeko gaixotasunagatik absentismoaren portzentajea txikiagoa bada Bizkaiko Foru Aldundian urte horretan egon den absentismoaren batez besteko portzentajea baino, edo portzentaje bi horiek berdinak badira.
- % 50 ordainduko da, baldin eta absentzia hasi aurreko urtean langileak izan duen bazarik gabeko gaixotasunagatik absentismoaren portzentajea handiagoa bada Bizkaiko Foru Aldundian urte horretan egon den absentismoaren batez besteko portzentajea baino. (hau da, aldi baterako ezintasunagatik absentziaren lehen hiru egunetan bezala).

Sistemak absentzia-eguna ordu teorikoetara doitu du, lehen egunean fitxaketak egin badira ere.



Horri buruzko arautze-irizpideak “Aldi baterako ezintasunaren inguruko ekonomi hobekuntzak” deritzon erabakiko 3. atalean ezarritakoak dira (gaixotasun edo istripuagatiko baimena).

Ondoezagatiko absentzia partzialak "kitatu beharreko denbora"tzat hartuko dira, medikuaren frogagiria aurkeztu ezean. Agiri hori familia-medikuak, Aldundiko medikuek edo —GUFeko langileen kasuan— GUFeko medikuak egin dezakete, eta medikuaren agindua jasoko ditu.

Edonola ere, honelako absentziak zurrizko espedienteen jarraipena egingo da, nola erabiltzen diren kontrolatzeko. Langileek zurrizko horiek behar baino gehiago erabiltzen dituztela ikusten bada, ohartarazi egingo zaie. Erabilera mailak bere horretan badirau, beharrezko neurriak hartuko dira.

**«Medikuaren kontsultara» joatearen ziozko absentzia guztiak espediente baten bidez zurrizko behar dira. Espedienteari medikuaren frogagiria erantsiko zaio, eta bertan argi eta garbi adieraziko da kontsultaren iraupena (hasiera-ordua eta amaiera-ordua).**

Eskubide hori hilean lau ordu baino gutxiagotan eta honako hauetara joateko erabiltzea "benetako lantzat" hartuko da:

- \* Medikuntza orokorreko kontsultak.
- \* Odontologiako kontsultak.

Ezarritako muga gaindituz gero, gaindikin hori "kitatu beharreko denbora"tzat hartuko da.

Kontsultara joatea medikuak hertsiki agindutakoa bada, ez da arestian aipaturiko denbora-muga hori ezarriko, kasu hauetan:

- \* Espezialistaren kontsultara joateko: eskatu ohi den asistentzia-frogagiriaren gain, medikuaren agindua jasotzen duen agiria ere ekarri behar da.
- \* Sendabidea hartzea joateko: ezinezkoa bada sendabide hori lanorduetatik kanpo hartzea, eta enpresako medikuak ikuskatutako agindua ekarri gero. Tratamenduaren iraupena lanaldi osokoa bada, ez da "bajarik gabeko gaixotasuntzat" hartuko.
- \* Azterketa mediko espezifikoa egiteko: medikuaren agindua eta asistentzia-frogagiria ekarri behar dira.
- \* Langilea bera ospitaleko larrialdietara joateko edo ospitalean behaketan egoteko.
- \* Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpoko medikuengana joateko: kasu guztiak banan-banan aztertuko dira, eta kasu bakoitzean zehaztuko da benetako lantzat hartu beharreko denbora. Edonola ere, medikuaren beren-beregiko agindua ekarri behar da.

Tratamendu bera ezarriko zaio “Aldundiko mediku-azterketa”ri.



Bestalde, langile batek hil beraren barruan medikuaren kontsultara (medikuntza orokorrekora edo odontologiakora) joan behar badu eta, horrez gain, hurbileko senideei (ezkontidea, bikotekidea, gurasoak, aita-amaginarrebak, seme-alabak edota suhi-errainak, neba-arrebak, koinata-koinatuak eta tutoretzapeko senideak) kontsultara lagundu behar badie (medikuntza orokorreko kontsultara edo espezialistaren kontsultara), lehen aipatutako ordu multzoa — hileko lau (4)— handitu, eta zazpi (8) ordukoa izango da. Edonola ere, kontzeptu bakoitzeko ordu kopurua ezin daiteke lau (4) ordutik gorakoa izan. Desgaitasuna duen pertsona bati laguntzeko bada eta langileak pertsona horren zuzeneko zaintza badu, orduan laguntzeko orduak sei (6) izango dira.

Beste senide batzuei kontsultara laguntzeko erabilitako denbora kitatu egin beharko da, langilea delako senide horrekin bizi dela frogatu ezean.

Esandakoez gain, langileak honako eskubide hauek izango ditu:

\* Ezkontide, bikotekide, guraso, aitaginarreba-amaginarreba, suhi-errain eta seme-alabei erietxe-larrialdietara laguntzeko beharrezko denbora, egoera bakoitzaren arabera eta baldin eta "Ahaideren baten gaixotasun larriaren ziozko lizentzia" hartzeko arrazoia ez bada; hau da, egoera dela-eta "Ahaideren baten gaixotasun larriaren ziozko lizentzia" hartzen bada, lizentzia hori bateraezina izango da larrialdietara laguntzeko lizentziarekin.

Beste senide batzuei laguntzeko erabilitako denbora kitatu egin beharko da, langilea delako senide horrekin bizi dela frogatu ezean.

\* Ezkontideari, bikotekideari, guraso eta seme-alabei, edota neba-arreba, aitaita-amama, iloba eta tutoretzapeko senideei eguneko ospitalera laguntzeko beharrezko lanaldia (gradu bereko senide politikoei laguntzeko ere izan daiteke), baldin eta egoera eragin duen gertaeraren bilakaera "Ahaideren baten gaixotasun larriaren ziozko lizentzia" hartzeko arrazoia ez bada. Halaber, ondoz ondoko bi egun emango dira ospitaleratu gabeko ebakuntza kirurgikoa egiteagatik (gaixoak atsedena hartu behar badu etxean), eta, ebakuntza 150 kilometrora baino urrunago egiten bada, egutegiko egun bat gehiago emango da lizentzia hasi aurreko egunean hartzeko, eta egutegiko beste bat, lizentzia amaitu ondorengo egunean hartzeko.

Horretarako, honelako kasuak zehatz aztertuko dira, gaixoak interbentzio ambulatorioaren ostean laguntza behar duela egiaztatzen duen medikuaren txostena jaso ondoren.

Goian aipatu ez diren senide batzuei laguntzeko erabilitako denbora kitatu egin beharko da, langilea delako senide horrekin bizi dela frogatu ezean.

Medikuaren kontsultetarako erabilitako orduak zenbatzerakoan, ordutegiaren doikuntza zortzietan (08:00) hasita egingo da, kontsulta goizeko lehen orduetan bada eta aurretiazko fitxaketarik ez badago.

Langilearen egutegiak goizeko 8ak baino lehen "nahitaez lanean egon beharra" ezartzen badu, eta medikuaren kontsulta goizeko lehen orduetan bada, "nahitaez lanean egon beharra" hasten den orduan hasiko da ordutegiaren doikuntza.





Aurreko irizpideak mantenduta, hala egiaztatuta geratzen bada, honela doituko da ordutegia, derrigorrezko presentzia-aldia betez:

- **Goizeko lanaldi etengabea duten langileak:** I. modalitaterako, 7 ordu eta 33 minutu neguko ordutegian eta 7 ordu, berriz, udako ordutegian; erreferentziazko modalitaterako, 7 ordu eta 30 minutu urte osoan.
- **Lanaldi etengabea duten eta asteko arratsalde batean lan egiten duten langileak:**
  - a) Goizez bakarrik lan egiten duten egunetan:** 7 ordu eta 15 minutu neguko lanaldian, eta 6 ordu udako lanaldian.
  - b) Goizez eta arratsaldez lan egiten duten egunetan:**
    - \* Langilea goizez irteten bada lanetik, goizeko lanaldiaren arabera doikuntza egingo da, goian adierazi den bezala.
    - \* Kontsulta arratsaldez bada, arratsaldeko lanaldiaren arabera doikuntza egingo da, hau da, 3 ordu eta 15 minuturen arabera.
- **Arduraldi berezia duten langileak.-**
  - \* Langilea goizez irteten bada lanetik, goizeko lanaldiaren arabera doikuntza egingo da; 6 ordukoa da lanaldia, neguan zein udan. Neguko lanaldiko ostiraletan, doikuntza 7 orduren arabera egingo da.
  - \* Kontsulta neguko ordutegiaren barruan arratsaldez egiten bada, doikuntza 2 ordu eta 20 minuturen arabera egingo da.

Dagokion frogagirian zehazten den iraupenaren eta kontsultara joateko erabilitako denboraren batuketa “kontsulta-denbora”tzat kontabilizatuko da .

Horri dagokionez adierazi behar da Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak frogagiri gehiago eskatu ahal izango dituela, medikuaren kontsultara joateko erabilitako denbora, kontsultaren iraupenaren eta kontsulta lantokitik dagoen distantziaren arabera, egokituz jo daiteken denbora baino askoz luzeagoa bada.

Emandako zerbitzuaren espezifikotasuna kontuan hartuta eta GUFeko zentroak eta zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eskubideak bermatzeko, GUFeri atxikitako langileek, medikuaren kontsultetara, tratamenduetara eta miaketetara joan baino lehen, aurretiaz behar besteko denboraz, ahal den guztietan, Pertsonak Zuzentzeko Departamenduko buruari jakinarazi beharko diote dagokien lizentzia hartzeko duten beharra.

### **2.1.6.- AHAIDEEN GAIXOTASUN LARRIAREN ONDORIOZKO LIZENTZIA**

Lizentzia honen iraupena honako arau hauetan ezartzen da, senidetasun-graduaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiko eta beraren erakunde autonomoetako funtzionarioen lan baldintzak araupetzen dituen akordioaren 52. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiko



eta beraren erakunde autonomoetako Lan-kontratuko langileen lan baldintzak araupetzen dituen hitzarmenaren 55. artikuluan.

Lizentzia emateko arrazoiak honako hauek izango dira, oro har: gaixotasuna edo ebakuntza kirurgikoa dela bide erietxean sartu behar izatea edota gaixotasun larria gertatzea, medikuaren txostenaren bidez behar bezala egiaztatuz gero.

Kasu bakoitzeko frogagiriak egiaztatu behar du gertakariaren iraupena egun batetik gorakoa izan dela.

Lizentziaren hasieratik amaierara arte ezin izango da hamalau (14) egun natural baino gehiago igaro. Hamalau (14) eguneko epea zenbatzeko orduan, egoera eragiten duen gertaerak jarraitu egiten duela jasotzen duen frogagiriaren eguna joko da lizentziaren hasiera-eguntzat.

Goian aipaturiko artikuluetan xedatu den moduan, aipaturiko lizentzia-aldiok luzatu egingo dira eta langileek beste bi egun natural izango dituzte, baldin eta egoera eragiten duen gertaera funtzionarioaren/langilearen ohiko egoitzatik 150 km baino gehiagora gertatzen bada.

Arrazoi hori dela-eta lizentzia luzatuz gero, eskatutako lizentzia-aldiaren aurre-aurreko eta ondo-ondoko egunetan aplikatuko da luzapena.

### **2.1.7.- BENETAKO LANA.-**

Lanean nahitaez egon beharreko denboran egiten diren absentziek hartzekoak ere modu proportzionalan gutxitzea ekarriko dute, baldin eta hileko ordubetetik (1) gorakoak badira.

Adierazitakoa gorabehera, Funtzio Publikoak langileei barik ezinbesteko arrazoiei egotzi behar zaizkien absentziak aztertuko ditu, eta, hala iritziz gero, absentzia horiek lan egindako denboratzat edo berreskuratu beharrekotzat hartuko ditu.

### **2.18- KONPENTSAZIOA.-**

Egutegi mota eta modalitate bakoitzean ezarritako eguneko lanaldia oso-osorik bete behar da egunero.

Ordutegia betetzeari dagokionez faltarik izanez gero, falta horiek gertatzen diren hilabete naturalaren barruan konpentsatu ahal izango dira, ezarritako malgutasun-mugen barruan.

Nolanahi ere, ezin da lanaldiaren erdia baino gehiago konpentsatu eta inola ere ezin dira konpentsatu lanaldiko 4 ordu baino gehiago.

Lanaldi osoko absentzia bat zuritzen ez bada, egun horretako lanaldi osoa kenduko da, eta ezingo da inola ere konpentsatu.



Lanaldiaren barruko hil bateko faltak "**bost (5) ordukoak edo bost (5) ordutik beherakoak**" badira, honela konpentsatu ahal izango dira:

- Aurreko hileko soberakinarekin.
- Hurrengo hileko soberakinarekin.

Halako faltak, zati batez behintzat, modu bietara konpentsatzeko aukera dago, eta horrek esan nahi du benetan bi hilabete natural daudela era horretako faltak konpentsatzeko.

Konpentsazioa honako kasu hauetan bakarrik atzeratu ahal izango da:

- Hilaren bigarren hamabostaldian gaixotasun-baja gertatuz gero: hurrengo hilean zehar konpentsatzeko aukera egongo da.
- Hilaren bigarren hamabostaldian arauzko bederatzi (9) opor-egun gutxienez hartuz gero:

kasu honetan ere, hurrengo hilean zehar konpentsatzeko aukera egongo da.

Aukera hori beste kasu honetan ere baliatu ahal izango da: haurdun dauden langileentzako baimena, aitatasun- eta amatasun-baimenak, adopzio- eta harrera-baimenak, opor-egunak, Aste Santuko edo Gabonetako baimenak, kitaturiko lanaldiak eta/edo jaiegunen ziozko egun libreak metatuz goian aipaturiko iraupena duen oporraldia osatzen bada.

Hileko falta, guztira, "**bost ordutik gorakoa**" bada, ez da konpentsatzeko aukerarik egongo. Kasu horretan, deskontu automatikoa egingo da nominan.

Aurreko edo ondorengo urteko hil bateko defektua berreskuratzeko erabilitako denbora ez da kontabilizatuko lan egin den urtean, denbora hori dagokion hilean eta urteko konputu osoan agertu arren.

### 2.1.9.- JUSTIFIKAZIOA

Egutegia betetzerakoan izan diren gorabeherak justifikatzeko, espediente bat izapidetu behar da gorabehera bakoitzeko, eta kasu bakoitzean eskatzen diren egiaztagiriak erantsi behar zaizkie espediente horiei

Ez dira onartuko egutegia betetzeko gorabehera gertatu den hila amaitu eta hogeita bost (25) egun natural igaro ondoren egiten diren justifikazioak. Horrek esan nahi du ezen, foru agindu baten bidez nominan deskonturik eginez gero, delako deskontu hori ez dela itzuliko.

Hala ere, urtean behin, hil bakarrerako, gorabehera gertatu eta hurrengo hilaren 25aren ondoren egindako zuribideak onartuko dira; beti ere ondorioa hileko ordutegi-kontrolagatik egin beharreko nominaren gaineko deskontua bada.

Zuribideok ezingo dute aldatu ez onartutako lizentziarik, ez egindako fitxaketarik.



Gainera, zuribide arruntak zuzeneko arduradunaren oniritzia behar badu, gorabehera azaltzeko eta zuritzeko aipatutako zuzeneko arduradunaren txostena beharko da, hala denean, dagokion nomina-deskontua itzultzeko.

Luzatutako zuribidearen gehieneko epea ordutegi kontrolerako araudiari jar lekiokoen errekurtsioa aurkezteko epe bera izango da.

### **2.1.10.- BAIMENDUTAKO IKASTAROETARA JOATEAREN ZIOZKO ORDU LIBREAK**

Goizez bakarrik lan egin eta ikastaroa arratsaldean duten langileek gehienez ere ordu 1 eta 30 minutu edo ordu 1 eta 33 minutu izango dituzte, aukeratutako egutegi motaren arabera (7 ordu eta 30 minutuko egutegia / 7 ordu eta 33 minutuko egutegia).

Astean arratsalde baten lan egiten duten langileek gehienez ere ordu 1 eta 15 minutu libre hartu ahal izango dute, baldin eta ikastaroa goizeko lanaldia besterik ez duten egun batean eta arratsaldean bada.

Edozein kasutan ere, ordu horiek lanaldiko azken orduak izango dira, eta kasu bakoitzean sortutako ordu libreen ondoretarako, ikastaroaren hasierako ordua joko da gehieneko mugatzat.

Goizeko eta arratsaldeko lanaldia badute eta ikastaroa arratsaldean bada eta gutxienez hiru ordukoa bada, gehienez ere 3 ordu eta 15 minutu libre izango dituzte.

Ikastaroaren iraupena 3 ordutik beherakoa bada, lizentziak ikastaroaren iraupena eta joan-etorriko bidaietan emandako aldia hartuko ditu, betiere 2.1.12 puntuan ezarritako gehieneko balioak muga izanda. Lizentzia hori ezin izango da inola ere 3 ordu eta 15 minututik gorakoa izan.

Arratsaldean egiten dituzten ikastaroetarako, jarduraldi bereziko egutegia duten langileek 2 ordu eta 20 minutu libre izango dituzte gehienez.

Ikastaroaren iraupena 2 ordu eta 20 minututik beherakoa bada, lizentziak ikastaroaren iraupena eta joan-etorriko bidaietan emandako aldia hartuko ditu, betiere 2.1.12 puntuan ezarritako gehieneko balioak muga izanda. Lizentzia hori ezin izango da inola ere 2 ordu eta 20 minututik gorakoa izan.

Ordu libreak zenbatzeko ezarri den gehieneko mugari buruzko irizpidea karrerako trebakuntza-ikastaroetarako ere erabiliko da.

Bestalde, araudi honetan jaso gabeko trebakuntza-ekintzak direla-eta sortutako librantzak ("On line" trebakuntza-ikastaroak...) Trebakuntza Planaren araudian ezarritakoak izango dira.

### **2.1.11.- EUSKARA-IKASTAROETARA JOATEAREN ZIOZKO ORDU LIBREAK.-**

Gai honi buruzko arautegi espezifikok zehaztu dira horrelako ikastaroetara joateagatik ordu libreak.



## 2.1.12.- LANTIKEK EMANDAKO IKASTAROETARA ETA DERRIGORREZKO TREBAKUNTZA-IKASTAROETARA LANORDUETAN JOATEA.-

Oro har, Bizkaiko Foru Aldundian egiten diren ikastaroak eta Lantikek ematen dituztenak Bilbon ematen dira.

Ikastaro horietara joateagatik sortutako absentzia justifikatzeko, ofizios grabatuko da intzidentzia bat, eta horren iraupena izango da ikastaroaren iraupena (edo langilea ikastaroan egon den denbora) gehi joaneko ordu erdi arteko bidaia eta itzulerako ordu erdi arteko bidaia.

Hala ere, ikastarora joateko eta itzultzeko denbora beste modu batera zenbatuko da lantokia Bilbotik urrun daukaten langileen kasuan, baldin eta joan-etorritarako ematen zaien denbora nahikoa ez bada.

Hainbat kasu dago egoera horretan, eta, beraz, jarraian adieraziko diren hiru (3) tratamenduak ezarri dira. Tratamendu bakoitzak kasuan-kasuan zehaztutako lantokietako langileengan izango du eragina:

**1.- Joan-etorritarako denbora:** Gehienez, 45 minutu joateko, eta, gehienez, 45 minutu itzultzeko.

LANTOKIA	
KODEA	IZENA
1700	MUNGIKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1800	DERIOKO ABELETXEA
4400	OGASUNAREN BARAKALDOKO BULEGOA
4500	OGASUNAREN GETXOKO BULEGOA
5900	DERIOKO IBILGAILU BASEA
7800	OGASUNAREN BASAURIKO BULEGOA
8000	OGASUNAREN PORTUGALETEKO BULEGOA
8600	OGASUNAREN MUNGIKO BULEGOA

**2.- Joan-etorritarako denbora:** Gehienez, ordu 1 joateko eta, gehienez, ordu 1 itzultzeko.

LANTOKIA	
KODEA	IZENA
1400	IGORREKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1900	GORLIZKO ABELETXEA
2000	ZALLAKO FRUTAGINTZA ESTAZIOA

**3.- Joan-etorritarako denbora:** Gehienez, ordu (1) eta 15 minutu joateko eta, gehienez, ordu (1) eta 15 minutu itzultzeko.

LANTOKIA	
KODEA	IZENA



LANTOKIA	
KODEA	IZENA
1100	BALMASEDAKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1200	DURANGOKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1300	GERNIKAKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1500	KARRANTZAKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
1600	MARKINAKO ESKUALDEKO NEKAZARITZA BULEGOA (ENB)
4600	OGASUNAREN DURANGOKO BULEGOA
4700	OGASUNAREN GERNIKAKO BULEGOA
4800	OGASUNAREN BALMASEDAKO BULEGOA
7700	GERNIKA-MARKINAKO ORDEZKARITZA

GUFeren kasuan, derrigorrezko prestakuntzarako ikastaroak, oro har, Bilbon eta Santurtzin ematen dira.

Hori oinarri eta kontuan hartuta erakunde horri atxikitako langileek zein lantokitan ematen duten zerbitzua, tratamendu hauek ezartzen dira, joaneko bidaian eta itzulerako bidaian ematen den denboraren arabera:

**1.- Joan-etorrietarako denbora:** Gehienez, 45 minutu joateko, eta, gehienez, 45 minutu itzultzeko.

LANTOKIA	
IKASTAROA BILBON	IKASTAROA SANTURTZIN
BARAKALDO	BARAKALDO
BASAURI	BILBO
DERIO	GALLARTA
GALLARTA	LEIOA
LEIOA	
MUNGIA	
PORTUGALETE	
SANTURTZI	

**2.- Joan-etorrietarako denbora:** Gehienez, ordu 1 joateko eta, gehienez, ordu 1 itzultzeko.

LANTOKIA	
IKASTAROA BILBON	IKASTAROA SANTURTZIN
ZALLA	BASAURI
GORDEXOLA	DERIO
	MUNGIA

**3.- Joan-etorrietarako denbora:** Gehienez, ordubete (1) eta 15 minutu joateko eta, gehienez, ordubete (1) eta 15 minutu itzultzeko.



LANTOKIA
IKASTAROA BILBON
ELORRIO
GERNIKA
URDUÑA

4.- Joan-etorrietarako denbora: Gehienez, ordubete (1) eta 30 minutu joateko eta, gehienez, ordubete (1) eta 30 minutu itzultzeko.

LANTOKIA	
IKASTAROA BILBON	IKASTAROA SANTURTZIN
ONDARROA	GORDEXOLA
	ZALLA

5.- Joan-etorrietarako denbora: Gehienez, ordubete (1) eta 45 minutu joateko eta, gehienez, ordubete (1) eta 45 minutu itzultzeko, ikastaroa Santurtzin bada:

LANTOKIA
IKASTAROA SANTURTZIN
GERNIKA
ELORRIO
URDUÑA

6.- Joan-etorrietarako denbora: Gehienez, 2 ordu eta 15 minutu joateko eta, gehienez, 2 ordu eta 15 minutu itzultzeko, ikastaroa Santurtzin bada:

LANTOKIA
IKASTAROA SANTURTZIN
ONDARROA

Ikastaroa lantokia dagoen udalerrian ematen bada, ordu erdira arte emango da joaneko bidaiarako, eta berdin itzulerako bidaiarako.

**2.1.13.- DERRIGORREZKO TREBAKUNTZA-IKASTAROETARA LANEKO ORDUTEGITIK KANPO JOATEA.-**

Ikastaroak ezin direnean laneko ordutegiaren barruan egin, ikastaro horiek egiteak Trebakuntza Egitasmoaren Arautegian ezarritako librantzak sortuko ditu: arautegiak ezarri moduan hartuko dira, eta betiere 2019ko martxoaren 31 baino lehen.

Hala sortutako orduak konpentsatzeko, "ordu-poltsa" bat sortuko da; ordu horiek lanaldi osoetan eta edozein lanaldi-tartetan gozatu ahal izango dira, betiere unitateko arduradunak onarpena emanda.

**2.1.14.-BULARRA EMATEKO LIZENTZIA.-**



Lanegun bakoitzeko, funtzionarioek **ordubeteko (1) etena** egin ahal izango dute bularra emateko, amatasun-lizentzia amaitzen den egunaren biharamunetik hasi eta erditzetik **hamasei (16) hilabete** betetzen diren egunera arte.

Arduraldi berezia duten langileek bularra emateko ordu bat hartzen badute, ez dira egongo lanaldi zatitua egitera behartuta.

Bularra emateko orduen metaketari dagokion egun kopurua honela kalkulatu da: amatasun-lizentzia bukatu eta biharamunetik hasita erditzearen ondoko hamaseigarren (16) hilabetea betetzen den egunera arteko lanegun bakoitzari ordubete (1) esleituko zaio, eta eragiketa horren emaitza eskatzailearen lan-egutegiaren arabera doituko da.

Bularra emateko egunero ordubete hartuz gero eta halako batean hartu gabeko orduak metatu nahi izanez gero, bularra emateko orduak metatzeagatik har daitekeen egun kopurua honela kalkulatu da: delako egun horretatik erditzearen ondoko hamaseigarren (16) hilabetea betetzen den egunera bitarteko lanegun bakoitzari ordubete (1) esleituko zaio, eta eragiketa horren emaitza eskatzailearen lan-egutegiaren arabera doituko da.

Kasu bietan, kalkuluak ez badu aukerarik ematen egun kopuru zehatz batean gozatzeko, hau da, lanaldi oso bat osatzeko behar beste ordu ez badaude, langileek aukera izango dute lanaldi oso bat hartzeko eta ondorioz sortutako defektua berreskuratzeko.

Bi kasuetan, bularra emateko lizentzia amaitu ondoren, egiaztatu egingo da kontzeptu horregatik hartutako ordu libreak bat datozen zerbitzua emandako aldiaren arabera sortutako ordu kopuruarekin.

Alderik egonez gero, berreskuratu/konpentsatu egin beharko da alde hori.

Langile batek berez dagozkion baino ordu gehiago hartzen baditu eta ez badu diferentzia hori berreskuratzen, automatikoki gutxituko zaizkio ordainsariak, sobera hartu dituen orduetako dagokien proportzioan.

### **2.1.15.-NORBERAREN GAIETARAKO LIZENTZIA.-**

Halako lizentzien gutxieneko iraupena zazpi (7) egunekoa izango da, eta, gutxienez, lizentzia hasteko aurrez ikusitako eguna baino egutegiko hamar (10) egun lehenago eskatu behar da.

Baimen honen iraupen metatua ezin da hiru (3) hilabetetik gorakoa izan bi (2) urteko, eta elkarren segidako bi lizentziaren artean hamabost (15) eguneko tartea egon behar da gutxienez.

Norberaren gaien ziozko lizentzia hartzeak honako hauek modu proportzionalean gutxitzea ekarriko du: ezarritako arauzko opor-egunak, Aste Santuko eta Gabonetako baimenetako egunak, antzintasun-egunak, norberaren gaien zioz baimeneko egun/orduak eta zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimeneko orduak.





Lizentzia hau aurreko paragrafoko egun eta baimen guztiak hartu eta gero eskatzen denean eta eskatutako aldiak kontzeptu horiei dagokien egunen kopurua gutxitu beharra dakarrenean, kontsulta egin behar zaio beren-beregi Antolaketa Zerbitzuari, sortutako egoera nola erregularizatu erabaki dezan, hala egin behar izanez gero.

Bestela, abenduko kontagailuak finkatu ondoren eta urteko ordu-zenbaketa itxita daudenean, murrizketa proportzionala egingo da kontzeptu horren ondorioz dagozkion hartzekoetan.

### 2.1.16. GAIXOTASUN KRONIKOA EDO MUGITZEKO ARAZOAK DITUZTEN SENIDEAK ZAINTZEKO LIZENTZIA.-

Akordioko 53.artikuluak eta Hitzarmeneko 56 artikuluak hau ezartzen dute: *«gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senideak laguntzeko: Mugitzeko arazorik edota medikuaren txostenak egiaztatutako gaixotasun larri kronikoa duela eta, odol-ahaidetasun edo senidetasunaren bigarren gradurainoko ahaide bat (edo urrunagoko gradukoa, funtzionarioarekin bizi bada) lagundu edo zaindu behar duten langileek urtean berrogeita hamar orduko baimen ordaindua hartu ahal izango dute gehienez».*

Eskabidea urte hasieraren ondoren izapidetzen bada edo zerbitzua ez bada urte osoan eta/edo lanaldi osoan ematen, ordu horien zati proportzionala hartu ahal izango da.

Ondorioz, sortutakoa baino ordu kopuru handiagoa hartzen duten langileei dagokion murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.

Oro har, ordu kreditu honetatik gehienez hiru ordu erabili ahal izango dira egunean, eta lanerako benetako sarrera edo irteera batekin bat edo prestakuntza-ikastaro edo kontsulta mediko baten hasiera edo amaiera batekin bat eginez hartu beharko dira (egiten ez badira, ez dira kontuan hartuko zentro medikorako joan-etorriak).

**Txanden arabera egutegia duten GUFeko langileek egun osoak hartu ahal izango dituzte, baldin eta eskaera 7 eguneko aurrerapenarekin egiten badute, zerbitzua ematen dela bermatzen bada, eta zentroko langileen % 50 mantentzen bada, eskabideak urtero ezartzen diren plangintza-aldietarako egiten direnean.**

Senidea egoitza-zentro espezializatu batean sartuta badago langile espezializatuek behar dituen laguntza eta zaintza emateko, beharrezkoa izango da senidearen laguntza edo zaintza horiek egiaztatzea lizentzia honen eskubideaz gozatu ahal izateko.

Ondorioz, oro har, kasu horietan lizentzia hau emateko dokumentazio hau aurkeztu beharko da: lagundu edo zaindu beharreko senidearen errolda-ziurtagiria (hemendik aurrera, lizentzia hau eskatzeko dokumentazio orokorrean sartuko da) eta eskatzen den dokumentazio osagarria.

Bestalde, senidea eskatzailearen lan-zentrotik urrun samar bizi denean —oro har, distantzia hori berrogeita hamar (50) kilometro baino handiagoa denean— lizentzia honen erabilera arautzeko, lizentziaren eskatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du lizentzia izateko eskubidea izateko: lagundu edo zaindu beharreko



senidearen errolda-ziurtagiria eta, horrez gainera, senidearen laguntza edo zaintza egiaztatzeko eskatzen zaion dokumentazio osagarria.

Edonola ere, lizentzia honetaz gozatu ahal izateko zerbitzuaren beharrianak hartuko dira kontuan, ezinbestez; beraz, eskatzailearen zuzeneko buruak eskaeraren berri izan behar du, eta onartu egin behar du (formalki, ondoren onartzen bada ere).

### **2.1.17 - OHIKO ETXEBIZITZA ALDATZEKO LIZENTZIA.-**

Lizentzia hartzen den egunaren eta lizentzia hartzeko frogagiri legez eskatzen den ziurtagirian agertzen den erroldatze-dataren artean ez dira hamabost (15) egun baino gehiago egon behar.

Ez da inola ere beste lizentziarik emango agiri hori lortzeko zentro ofizialean egin behar diren kudeaketak egiteko.

### **2.1.18 – LANALDI MURRIZTUAN LANTOKIAN NAHITAEZ EGON BEHARREKO DENBORA**

Lanaldi murriztua hartu duten langileak lantokian nahitaez egon behar diren denbora aukeratu duten murrizketa motaren arabera izango da.

Goizeko eta arratsaldeko lanaldia izan eta lanaldiaren murrizketa eskatzen duten langileek ez dute arratsaldez lan egin beharko, baldin eta, aukeratutako murrizketa modalitatearen arabera, lantokian goizez nahitaez egon beharreko denbora lanaldi osoari dagokiona baino luzeagoa bada.

Arduraldi eskusiboa edo «7:15eko lanaldia arratsalde batekin» modalitatea izan eta lanaldiaren 1/5eko edo hortik beherako murrizketa aukeratzen duten langileek ere ez dute arratsaldez lan egin beharko, nahiz eta lanean nahitaez egon beharreko denbora goizeko lanaldirako ezarritakoa baino luzeagoa izan, aldea oso txikia baita.

### **2.1.19. - ARRATSALDEAK ETA/EDO LARUNBATAK.-**

Lanaldi etengabe lan egiten duten plantillako langileek proposatzen zaizkien egutegietako bat aukeratu beharko dute, eta beren unitateko buruari jakinarazi beharko diote, hark oniritzia eman diezaion langilearen aukerari. Behin egutegia zehaztuz gero, egutegi hori ezin izango da urte osoan aldatu.

Zenbait kasu berezitan justifikatuta egon daiteke aldaketa egitea, bada, orduan, Antolaketa Zerbitzuari edo —GUFeko langileen kasuan— Gerentziari eskatu behar zaio aldaketa hori, horretarako ezarrita dagoen bidea erabiliz (nagusien baimena eta Saileko Zerbitzu Orokorrek izapidetzea).

Enplegaturen batek ez badu egutegi bat ere aukeratzen, Saileko Zerbitzu Orokorrek edo —GUFeko langileen kasuan— zentroko zuzendariak egutegi modalitateetako bat ezarriko diote.



Asteko arratsalde batean lan egin beharra dakarten egutegi modalitateetan, lanerako arratsaldeak aldez aurretik zehaztuta daudenez, arratsalde horiek benetako lan-denboratzat hartuko dira gaixotasunaren ziozko bajetan eta lizentzia eta/edo baimen garaietan.

Aldi baterako kontratatzen diren langileei goizez bakarrik lan egiten duten langileentzat zehaztutako II. modalitatea ezarriko zaie.

Behean zehazten diren taldeetako langileek atsedeen egunak izango dituzte lan egindako larunbatengatik, honekin bat etorrira:

BENETAN LAN EGINDAKO LARUNBATEN KOPURUA	EGUN LIBREAK
6	Egun 1
12	2 egun
18	3 egun
21	4 egun

Antolaketa Zerbitzuari edo —GUFeko langileen kasuan— Gerentziari jakinarazi behar zaio zein egun hartuko den libre, horretarako inprimakiaren bitartez.

Aipaturiko taldeok honako hauek dira:

- “Liburutegiko laguntzaile teknikoak”
- “Agiritegi, museo eta liburutegietako laguntzaileak”.
- “Gufe” erakundeko langileak.

### 2.1.20. – ORDUTEGI ALDAKETAK.

“Arratsaldeko ordutegia duen lanaldia” ezingo da aldatu “arratsaldeko ordutegirik ez duen lanaldia”ren ordez, baldin eta gero, akordio/hitzarmenean ezarritako lizentziaren bat erabilita, langilea ez bada lanera joaten arratsaldeko ordutegiaren zati batean edo osoan.

**Hala ere, salbuespenez, sei hilerik behin horrelako aldaketa bat egitea onartuko da, aurreko edo ondorengo astean.**

Lanaldiaren aldaketa horiek onartuak izateko, “arratsaldeko ordutegia duen lanaldia” bihurtu den egunerako ezingo dira aldi berean izapidetu lehen adierazitako absentsiak zurrizko espedienteak.

Horrelako kasuak daudela antzemanaz gero, behin-behinean onartutako lanaldi-aldaketa deuseztatuko da.

Arratsaldeko ordutegia duen lanaldiaren ordez arratsaldeko ordutegirik ez duen lanaldia hartzeko egiten diren aldaketak aste natural berean bakarrik onartuko dira.

**Bakarrik onartuko dira urtarrilaren 1ean ondorioak dituzten egutegi-aldaketak, baina beste kasu honetan ere onartuko dira aldaketak, neguko lanaldia hasten denean: urtea**



amaitzeko falta diren ordu teorikoen kopurua eta aldatu nahi den egutegiko ordu teorikoen kopurua bera denean.

### 2.1.21. — LANALDI MURRIZTUA METATZEA

#### ESKAERA

- Gutxienez ere, 15 egun natural lehenago egin behar da eskaera.

#### ALDIA

- Gutxienez ere hilabeteko aldietarako eskatu behar da (ahal dela, hil naturaletarako) eta gehienez ere urte natural baterako.

#### GOZAMENA

- Metatzea lanaldi osoetan egingo da, aldizka eta hilean zehar.  
**Edozelan ere, senideak zaintzeko lanaldiaren murrizketak metatzerakoan, GUFEn urteko orduen likidazioa egitea onartuko da, betiere bermatzen bada hilean gutxienez lanaldi murriztuaren % 20 egingo dela.**
- Bizkaiko Foru Aldundiarekin edozein kontratu mota duten langileek eskatu ahal izango dute metatze hori, ordezte-kontratuak duten langileek izan ezik.
- Oro har, hilez hil egingo da orduen likidazioa.

#### DEUSEZTATZEA

- Hilabete lehenago egingo da deuseztatzea, lizentzia emateko arrazoia desagertzen denean izan ezik.

#### BESTE ALDERDI OROKOR BATZUK

- Eskabidearekin batera, egutegiaren plangintza bat aurkeztu behar da eskaeraren zioa den aldi osorako.
- Justifikatutako zerbitzu-arrazoen baldintzapean egongo da.
- Proposatutako plangintza onartu ondoren, lanaldi murriztua metatzea onartzen duen foru aginduari erantsiko zaio proposamen hori.

#### ORDEZKAPENAK

- Bakar-bakarrik egingo dira premia dagoen kasuetan eta aurretik itundutako egunetarako, baldin eta egun horietan erregularitasun bat badago lanaldi murriztuaren erabileran (hau da, inoiz ez hasierako orduei gehituta lanaldi osoez gozatzeko aukera ematen duten orduen soberakinen edo metaketaren kasuan).

#### LIZENTZIAK



- Arauzko opor-egunak, txanda-egunak, antzinasun-egunak eta lizentziak/baimenak lanaldi murriztuaren arabera izango dira.
- Lizentziak egun osoetarako eta murrizketa metatuaren aldiaren barruan badira, egun kopurua proportzionalki murriztuko da. Azken eguna, dezimalekin geratzen bada, osorik har daiteke, baina, hala ere, berreskuratu beharko dira lanean eman ez diren orduak.
- Lizentziak poltsa-orduekin hartuz gero (nor bere gaietarako orduak eta zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimenekoak edo senideak zaintzeko 50 orduak), proportzionalki murriztuko dira ordu horiek.

*Egun osorako lizentzia eta gorabeheretarako eskabideak paperez egin behar ditu langileak, eta adierazi behar du lanaldi murriztu metatuan dagoela; izan ere, programa ez dago prestatuta lanaldi murriztua metatzen den egoerak zuzen kontrolatzeko.*

*Behar ez bezala, bide informatikoan tramitatuz gero, baliorik gabe geratuko dira egiaztatzen bada emaitza ez dela benetan dagokiona.*

#### **KASU BEREZIAK**

- Familiakoak zaintzeko eszedentzia ezinezkoa ez den kasuetan —12 urtetik beherako seme-alaben kasua—, gutxienez ere bosten bateko (1/5) murrizketa metatu ahal izango da aldi bakar batean, gehienez ere 156 ordu bete arte, edo Aste Santuko eta Gabonetako eskola-oporrak hartzen dituen aldia bete arte, betiere aldi bakarretan eta behin aldiak sortu ondoren.
- Karrerako funtzionarioek eta lan-kontratu mugagabeko langileek bakarrik eskatu ahal izango dute metatze mota hori.”

#### **2.1.22.- MINBIZIA EDO BESTE GAIXOTASUN LARRI BAT DUEN SEME-ALABA ADINGABE EDO SENIDE BAT ZAINTEKO BAIMENA.**

Baldin eta bi gurasoek, adoptatzaileek edo adopzioa egin aurreko hartzailerek edo harrera iraunkorra egin duten hartzailerek lan egiten badute, funtzionarioak eskubidea izango du lanaldia % 75 murrizteko, eta ordainsari guztiak jasoko ditu, zerbitzuak ematen dituen organo edo erakundearen kontura, minbizia (tumore gaiztoa, melanomak eta kartzinomak) edo ospitaleratze luzea eta zuzeneko zaintza jarraitua eta iraunkorra behar duen beste gaixotasun larri bat duen seme-alaba adingabea zaintzeko, ospitalean dagoenean eta tratamendu jarraitua jasotzen ari denean. Osasun Publikoko zerbitzuak edo Autonomia Erkidegoko osasun arloko administrazio-organok edo itundutako osasun-erakundeak (hala denean) ziurtatu beharko du zaintza hori beharrezkoa dela.

Arrazoi hau dela-eta lanaldia murrizten den aldian, enplegatu publikoak ordainsariak osorik jasoko ditu zerbitzuak ematen dituen organo edo erakundearen kargura, betiere uztailaren 29ko 1148/2011 Errege Dekretuan araututako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea ez badu (minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak



zaintzeko prestazio ekonomikoa Gizarte Segurantzako sisteman aplikatzeari eta garatzeari buruzkoa da dekretu hori).

Prestazio ekonomiko hori jasoz gero, prestazio horren eta Bizkaiko Foru Aldunditik jasotzen dituen ordainsarien batura ezin izango da inoiz ere lanaldi osoan jasoko lituzkeen ordainsari guztien % 100etik gorakoa izan; bestela, dagozkion konpentsazioak egin beharko lirateke.

Era berean, prestazio horren eta Bizkaiko Foru Aldunditik jasotzen dituen ordainsarien batura ez bada heltzen lanaldi osoan jasoko lituzkeen ordainsari guztien % 100era, Aldundiak ordainsariok osatuko lituzke, % 100eraino.

Interesdunak aukera izango du murrizketaren aldia metatzeko: erabaki ahal izango du hilean zein egunetan egiten duen lan eta zein egunetan ez (ordu kopuruaren proportzioa beteta). Lizentzia, opor eta txandei dagokienez, murrizketa metatuari buruzko araudia bete beharko du.

Langileak Kudeatzeko Zerbitzuan (Lan Harremanen Atalean) aurkeztu beharko du baimenerako eskabidea, gutxienez ere baimenaz gozatzen hasi baino 7 egun lehenago. Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Lan Osasuneko Unitatean aztertuko da eskabidea; unitate horrek eskatuko ditu beharrezkotzat jotzen dituen agiri eta erreferentzia guztiak, jakiteko nolakoa den kasua eta noiz arte iraun dezakeen.

Baimenaz gozatu ahal izateko, beharrezkoa izango da unitate horrek ontzat ematea.

Hilean behin —edo Aldundiak eskatzen duenean— egiaztatu beharko da gaixotasun-egoerak jarraitzen duela, Lan Osasuneko Unitateak adierazten duen moduan.

Baimena interesdunaren eskariz amaitu ahal izango da, edo administrazioaren kabuz, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Lan Osasuneko Unitateak hala erabakitzen badu.

Baldin eta bi gurasoek, adoptatzaileek edo adopzioa egin aurreko hartzailleek edo harrera iraunkorra egin duten hartzailleek eskubidea badute subjektu eta gertaera eragile bera dela-eta baimena jasotzeko, edo aplikatu behar zaien Gizarte Segurantzaren araubidean helburu honetarako ezarritako prestazioaren onuradun izan badaitezke, funtzionarioak eskubidea izango du ordainsari guztiak jasotzeko lanaldiaren murrizketak dirauen bitartean; baina, horretarako, baldintza hau gertatu behar da: beste gurasoak edo adoptatzaileak edo adopzioa egin aurreko beste hartzailleak edo harrera iraunkorra egin duen beste hartzailleak, dagokion lanaldiaren murrizketa izateko eskubidea gorabehera, ezin izango ditu kobratu ordainsari guztiak, ez baimen honengatik, ez aplikatu behar zaion Gizarte Segurantzaren araubidean helburu honetarako ezarritako prestazioaren onuradun izateagatik.

Kontrakoa gertatuz gero, lanaldia murrizteko eskubidea besterik ez du izango, eta, ondorioz, dagokion murrizketa izango du ordainsarietan.



Horretaz gainera, pertsona biek organo edo erakunde berean lan egiten badute, organo edo erakunde horrek mugatu ahal izango du eskubidea aldi berean erabiltzea, zerbitzuaren funtzionamendu ona dela-eta.

Baimen honen bidez lortzen den murrizketa bateragarria izango da adingabeak edo senideak zaintzeko lanaldiaren murrizketarekin, interesdunak aukeratutako portzentajea eta, betiere, adingabea adinez nagusi izan arte.

Baimen hau ezkontidearen eta ezkontza edo odol bidezko lehenengo mailako senideen kasuan ere erabili ahal izango da, baldintza analogoetan.

Lizentzia hau lortzeko, zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, non hau adieraziko den: guraso, adopzio-hartzaile edo adopzio aurreko hartzaileek —seme-alaba adingabearen zainketaren kasuan— eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailako senideek —ezkontidearen edo lehen mailako senideen zainketaren kasuan— lan egiten dutela eta ez dutela uztailaren 29ko 1148/2011 Errege Dekretuan araututako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik. Errege dekretu hori minbizia edo beste gaixotasun larri bat duten adingabeak zaintzeko prestazio ekonomikoa Gizarte Segurantzako sisteman aplikatzeari eta garatzeari buruzkoa da.

#### **2.1.23.- LANUZTEAK ETA GREBA EGUNAK ARAUTZEA.**

Lanuztea edo greba deituta dagoen egunetarako, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez berariaz emandako baldintza bereziak izango dira bete beharreko araudia.

#### **2.1.24.- HIRU HILEAN BEHIN SEME-ALABEN IRAKASLEEK ANTOLATUTAKO BILERARA JOATEKO LIZENTZIA**

Hiru hilean behin seme-alabetako bakoitzaren irakasleekin antolatutako bilera batera joateko denbora lan egindako denboratzat joko da, seme-alabak Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza edo Bigarren Hezkuntza arautuan daudenean.

Hiruhilekoan zehar, bilera gehiagotara joan behar izanez gero, aukera egongo da joateko, baina horretarako erabilitako denbora berreskuratu egin beharko da.

Kasu bietan frogagiria aurkeztu beharko da, bileraren iraupena zehaztuta (hasiera eta amaiera).

Ez dira lizentzia honetan sartzen guraso elkarteetan bilerak, batzarrak, eskola kontseiluaren eta zentroko ordezkari organo gorenaren edo antzekoen bilerak.

#### **2.1.25.- NORBERAREN INTERESAGATIK HARTUTAKO LANALDI MURRIZTUAREN ARAUDIA.**



Lanpostuaren izaerarekin eta lantokiaren berezko eginkizunekin bateragarria denean, baimena eman ahal izango da norberaren interesetatik lanaldi murriztua hartzeko; kasu horretan, lanaldia 9etatik 14etara izango da, eta ordainsarien % 75 jasoko da. Horretarako, betiere, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuak ezarritako baldintzak bete behar dira.

Karrerako funtzionarioei edo lan-kontratu mugagabeko langileei aplikatu ahal izango zaie baimen hau, baldin eta lanaldi normalizatua badute. Nolanahi ere, aukera hau izango dute, era berean, egutegi "normalizatua" izan gabe (dedikazio eskusiboa daukaten lanpostuetako langileak, txandaka edo egutegi bereziekin lan egiten duten langileak), adingabekoa zaintzeko lanaldia murrizteko eskaera egiteko baldintzak betetzen dituzten langileek, kasu bakoitzean egin behar diren ordutegi-egokitzapenak eginez.

Baimenaren iraupenak egutegiko urte oso bat (1) hartu behar du.

Lan-ordutegia lehen adierazitakoa izango da: 9etatik 14etara, sartzeko 8:40tik 9:20ra arteko malgutasunarekin eta irteteko 13:40tik 14:20ra arteko malgutasunarekin.

Lanaldi murriztu hau eskatzeko, murrizketa egingo den urteko urtarrilaren 1a baino gutxienez hilabete lehenago egin behar da eskaera. Eskaera idatziz egin behar da; Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusiari bidaliko zaio, eta Foru Aldundiaren Erregistroan edo langileak zerbitzuak ematen dituen Saileko Zerbitzu Orokorraren Zerbitzuan aurkeztuko da, Atarilekun horretarako berariaz jarritako sistemak erabilia.

Ebazpena emateko, eskaerak txosten bat beharko du zerbitzu-arrazoiei buruzkoa; eragindako Sailak emango du txostena.

Ez da inoiz ere posible izango lanaldi mota hau hartzen duen pertsona ordezte. Lanaldi murriztu hau hartzeak ekarriko du Gizarte Segurantzari egiten zaion kotizazioa ere proportzio berean murriztea, hau da, laurden batean.

Prozedura hau dela-eta lanaldia murriztuta daukan pertsona batek mugikortasunaren sistemen bidez beste lanpostu bat okupatu behar badu, emandako murrizketa amaitutzat joko da ofizioz, baldin eta lanpostu berria baimen honen aplikazio-eremutik kanpo badago.

Hala ez bada, eragindako Sailak zerbitzu-arrazoiei buruzko txosten bat egin behar du. Txosten hori eman ezean, Administrazioak amaitutzat joko du lanaldiaren murrizketa, ofizioz.





## 2.2.-ARAUZKO OPORRAK HARTZEKO IRIZPIDEAK

### - 2019. URTEA -

2.2.1.- Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioen eta lan-kontratuko langileen arauzko oporrak *“Funtzionarioen lan baldintzak araupetzen dituen akordioan”* eta *“Lan-kontratuko langileen lan baldintzak araupetzen dituen hitzarmenean”* xedatutakoaren arabera antolatuko dira.

2.2.2.- Foru sail bakoitzeko Zerbitzu Orokorren zerbitzuburuari dagokio Saileko langileen opor ordainduei hasierako onespina ematea, dagokion atalburuak eta/edo zerbitzuburuak adostasuna adierazi eta gero.

2.2.3.- Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzari dagokio, Antolaketa Zerbitzuaren bitartez, arauzko oporrei buruz indarrean dauden arauak behar bezala aplikatzen diren fiskalizatzea.

2.2.4.- Atalburuak eta/edo zerbitzuburuak Bizkaiko Foru Aldundiko langileen arauzko oporretarako eskaerari oniritzia eman eta gero, eskaera hori foru saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuari aurkeztu behar zaio, nork bereari, oporrak hasi baino **egutegiko** hamabost (15) egun lehenago, beronek ere oniritzia eman diezaion, “norberaren aukerako” egunen kasuan izan ezik, kasu horretan nahikoa baita eskabidea egun horiek hartu baino **egutegiko** hiru (3) egun lehenago aurkeztea.

GUFEn kasuan, libre disposizioko egunak, oro har, egun horiek hartu baino hiru (3) egun lehenago eskatuko dira, betiere Aste Santuko, Udako eta Gabonetako plangintza egiteko alditik kanpo denean.

Behin Aste Santuko, Udako eta Gabonetako plangintza egiteko aldia hasita, ezin izango da libre disposizioko egunik hartu.

Udako plangintza hasita, onartuko da egun libreak hartzea, baina gehienez ere hiru (3) izan daitezke, eta, betiere, gutxienez zazpi (7) egun lehenago egin behar da eskaera.

Hala ere, epe horietatik kanpo izapidetutako eskaerak onartuko dira, betiere zuzeneko arduradunaren edo arduradunen oniritzia badute.

Horrelako eskaeren izapidetzea amaituta egon behar da oro har ezarritako zurrizpearen barruan, hau da, opor-eguna edo egunak hartu diren hilaren hurrengo hileko hogeita bosta (25) baino lehen.

2.2.5.- Eskaeran, oporraldiaren lehenengo eta azken eguna zehaztu behar dira, eta ez azken laneguna edo berriz lanean hasteko eguna.



2.2.6.- Eskatzaileek emandako datuak egiazkoak ote diren kontrolatu behar du Zerbitzu Orokorren Zerbitzuak, hala eskatutako egunak nola lehenago hartutakoak kontabilizatzeari dagokionez.

2.2.7.- Oporretarako eskaera arauzko epearen barruan eta arauzko moduan aurkeztu arren Zerbitzu Orokorrei, oporrak hasi baino lehen haiei buruzko onespena jasotzen ez duten langileek oporrak onartuta daudela ulertu ahal izango dute. Edonola ere, eskatutako oporrak zuzenak ez badira, ezarritako arauekin bat datozenak bakarrik hartu ahal izango dituzte.

2.2.8.- Zerbitzu aktibo osoko egoera administratiboan dauden langile guztiek udako lanaldiko **22 lanegun**eko opor ordainduak hartzeko eskubidea izango dute zerbitzu-urte oso bakoitzean zehar, aukeratu duten egutegi modalitatean ezarritako udako lanaldiaren arabera.

Urte osoan zehar zerbitzu aktibo osoan egon ez diren langileek (urte osokoak ez diren kontratuak izan dituztelako, norberaren gaien ziozko lizentzia hartu dutelako, eszedentzian egon direlako....), lehen aipatutako egun kopuruaren zati proportzionala hartzeko eskubidea izango dute, ateratzen den egun kopuru handiagora biribilduta:

<p>Urteko egun naturalen kop. – Lan egin gabeko egun naturalen kop. (norberaren gaien ziozko liz. / laneratze-eguna / aldi baterako langilea / eszedentziak / kontratuaren amaiera / etab.)</p> <p>-----</p> <p>Urteko egun naturalen kop.</p>	X 22
Opor-egunen kop.=	

Horretan oinarrituta, urteko lanaldia betetzeari dagokionez, oporrak orduka zenbatuko dira (egutegi modalitate bakoitzean zehaztutako udako lanaldiko **22** eguni edo zati proportzionalari dagozkienak).

Hartutako opor-orduak gehiago badira aukeratu den egutegi modalitatean zehaztutakoak baino (oporrak udako lanalditik kanpo hartzeagatik), orduetan sortutako alde hori urtean zehar kitatu behar da. Horretarako, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Parametroen barruko soberakinak.
- Parametroetatik kanpo lanean emandako orduak. Hala ere, aipaturiko ordu-falta kitatzeari dagokionez, ez dira kontuan hartuko parametroetatik kanpoko orduak, baldin eta udako lanaldian zehar irteteko malgutasun-mugaren ostean lan egindakoak badira.

Urtea amaitzean, falta hori ez bada kitatu, egin beharreko deskontua egingo da, baina horrek ez du inolaz ere diziplinazko ondorerik izango.



2.2.9. Lanaldia nolabait murriztuta duten langileek epe horretan sortu dituzten arauzko oporrei dagokien ordu kopurua ere murriztuta izango dute, lanaldian izan duten murrizketaren proportzioan, hain zuzen ere.

Lanaldi murrizketa metaturik dagoen kasuetan, metaketa hori definitzen den atalean arautu denaren arabera jokatuko da.

2.2.10.- Opor-egunak astelehenetik ostiralera zenbatuko dira, urteko lanaldia betetzeko ezarritako egutegi orokorraren modalitateetako baten arabera diharduten langileentzat.

Egutegi berezia duen talderen batean dauden langileen kasuan, berriz, egutegian bertan zehaztuko dira oporrei buruzko arauak.

2.2.11.- **22** opor-egunak, gehienez ere, honela banatu ahal izango dira:

**\* 15 egun, gehienez ere 3 oporralditan, eta oporraldiok gutxienez bost (5) lanegunekoak direlarik.** Egun horiek ondoz ondokoak izan behar dute (eskatutako oporraldia tartean jaiegunen bat duen aste natural batean suertatu ezik). Hala, bada, oporraldien batura **15** egun edo gehiago izan behar da.

**\* norberaren aukerako 7 lanegun:** jarraian edo banan-banan har daitezke.

*Opor-egun guzti-guztiak urriaren 15a baino lehen eskatu behar dira, norberaren aukerako 3 lanegun izan ezik.*

2.2.12.- Lehenago adierazitakoaren arabera kalkulaturako opor-egunak honela hartu ahal izango dira:

\* Norberaren aukerako egunen kopurua honela kalkulatu da:

	Urteko egun naturalen kop. – Lan egin gabeko egun naturalen kop. (norberaren gaien ziozko liz. / laneratze-eguna / aldi baterako langilea / eszedentziak / kontratuaren amaiera / etab.)	
Opor-egunen kop.=	-----	X 7
	Urteko egun naturalen kop.	

Ateratzen den egun kopuruaren zatiki hamartarra 5 edo hortik gorakoa bada, handiagora biribilduko da; txikiagoa bada, ordea, txikiagoa biribilduko da.

\* Gainerako opor-egunak txandatan hartu ahal izango dira, urte natural osoan jardunean dauden langileentzat ezarritako irizpide berberak erabiliz, eta hori posible ez bada, oporraldien gutxienerako iraupenera iristen ez delako, orduan dagokion murrizketa ezarriko da.

2.2.13.-Arazuko oporrak opor horiei dagokien urte naturalaren barruan hartu behar dira.



Urte bateko oporraldiak urtea amaitu baino lehen eta behar besteko aurrerapenez eskatu badira, baliteke urte horretako opor-egunak hurrengo urtera pasatzea, baldin eta zerbitzuaren salbuespenezko egoeraren batengatik bada.

Egoera horretan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren berariazko baimena beharko da, eta aurreko urtean hartu gabe geratu ziren opor-egunak urteko lehenengo bi hilabeteetan hartu behar dira; dena den, baliteke, kasu bakoitza aztertu ondoren, epe laburragoa ezartzea, eta epe hori, nahitaez, eskaturiko aurretiazko baimenean jaso behar da.

Edonola ere, gaixotasun-baja edo lan-istripu batengatik gozatu gabeko oporrak urtearen barruan hartu ezin badira, oporrak alta medikua hartzen den egunaren biharamunean hasi behar dira, eta horrek, zenbait kasutan, ekar dezake hurrengo urtean oporrak hartzea.

**2.2.14.-** Oporrak hartzean opor-egunen banaketari buruzko arauak betetzen ez dituzten enplegatuek aldi bakar batean hartu beharko dituzte arau horietara egokitu ezin daitezkeen gainerako opor-egun guztiak.

**2.2.15.-** Gaixotasun luze baten ondoriozko ordezpena egiteko aldi baterako kontratatzen diren langileek hiruhileko bakoitza bete ahala hartu behar dituzte oporrak, hiruhilekoaren azken egunetan, Funtzio Publikoaren Zuzendariordetzak baimen adierazia eman ezik.

Langile horiei batera kalkulatuko zaie arauzko oporrak, Aste Santu eta Gabonetako baimenak eta konpentsazio-egunak direla-eta dagokien egun kopurua: bederatzi (9) egun dagozkie lehen eta hirugarren hiruhilekoetan eta zortzi (8), bigarren eta laugarrenean. Egun horietatik hiru (3) norberak aukeratzeko egunak izango dira.

**2.2.16.-** Aldi baterako kontratua duten langileek kontratuaren indarraldiaren barruan hartu behar dituzte oporrak, ez baita inolako konpentsazio ekonomikorik emango oporren orde.

Gainera, sortzen diren urtean bertan hartu behar dira oporrak. Salbuespen modura, kontratua abenduan hasten duten langileek hurrengo urtean hartu ahal izango dituzte opor guztiak, eta, modu berean, kontratua urtarrilean amaitzen duten langileek aurreko urtean hartu ahal izango dituzte hil horri dagozkion oporrak.

Hala ere, hiru hilabetetik beherako epeei dagozkien oporrak ekonomikoki konpentsatu ahal izango dira, baldin eta ezinezkoa bada kontratua amaitzeko eguna aurrez ikustea.

**2.2.17.-** Kontratu baten epeari dagozkion oporrak ezin zaizkie hurrengo kontratu bati dagozkion oporrei metatu.

**2.2.18.-** Urtean zehar **22** opor-egun hartu ahal izango dira gehienez, nahiz eta urte berean kontratu bat baino gehiago izan.



**2.2.19.-** Dagozkien opor-egunak baino gehiago hartzen dituzten langileei murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.

**2.2.20.-** Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua 2. zenbakiak ezartzen duenez, administrazio publiko bakoitzak aukera izango du gehienez ere lau opor-egun gehitzeko, funtzionario publikoek zerbitzuan emandako aldiaren arabera.

Hori oinarri hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko langileek, baldin eta zerbitzuan 15 urte baino gehiago eman badute, 2019. urtean egun bat gehiago izango dute arauzko oporretan.

Egun hori eta antzintasuna dela-eta zuzemen pertsonaletarako baimenarenak (arautegi honetako 2.4 puntua) antzekoak dira; izan ere, biak zerbitzuan emandako aldiaren arabera dira, lanaldiaren murrizketa izan ezik (hori denbora osoko lanalditzat jotzen baita). Hori dela eta, batera hartuko dira, irizpide berak aplikatuta.



## 2.3.-ASTE SANTUKO ETA GABONETAKO BAIMENAK HARTZEKO IRIZPIDEAK

- 2019. URTEA -

Bizkaiko Foru Aldundiaren langileen Aste Santuko eta Gabonetako txandetarako eskariak dagokion Foru Saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren oniritzia behar dute, ataleko buruak edo zerbitzuko buruak onartu ondoren; hori guztia txanden lehenengo eguna baino egutegiko hamabost (15) egun lehenago egin behar da. Hala ere, epe horietatik kanpo izapidetutako eskaerak onartuko dira, betiere zuzeneko arduradunaren edo arduradunen oniritzia badute.

Horrelako eskaeren izapidetzea amaituta egon behar da oro har ezarritako zurrizpearen barruan, hau da, txandako egunak hartu diren hilaren hurrengo hileko hogeita bosta (25) baino lehen.

- Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatuek baimen bana izango dute Aste Santuan eta Gabonetan. Baimenok hiru (3) edo lau (4) egunekoak izango dira, aukeratutako egutegiaren arabera.

**4 eguneko txanda dutenek** honako egutegi hauek aukera ditzakete, zerbitzuaren beharren arabera betiere:

Aste Santuko txandak
1) apirilaren 12, 15,16 eta 17a 2) apirilaren 23,24, 25 eta 26a

  

Gabonetako txandak
1) Abenduaren 20, 23, 26, eta 27a 2)Abenduaren 30a, Urtarrilaren 2, 3 eta 7a

**3 eguneko txanda dutenek** honako egutegi hauek aukera ditzakete, zerbitzuaren beharren arabera betiere:



Aste Santuko txandak
1) apirilaren 12, 15 eta 16a 2) apirilaren 23,24 eta 25a
Gabonetako txandak
1) Abenduaren 20, 23 eta 26a 2)Abenduaren 30a, Urtarrilaren 2 eta 3a

Aipaturiko baimenak batez ere ezarritako egunetan gozatzekoak badira ere, beste egun batzuetara aldatu ahal izango dira, betiere zerbitzuaren beharrek horretarako aukera ematen badute.

Edonola ere, egun horiek multzoan hartu behar dira (hiru edo lau egunak jarraian).

Era berean, norberaren gaietarako lizentzia eta/edo ikasketetarako baimena hartzeak Aste Santuko eta/edo Gabonetako baimenetako egun kopurua ere modu proportzionalan gutxitu beharra ekarriko du.

- Gauza bera gertatzen da abenduaren 31ra arte zerbitzu aktiboko urte osoa betetzen ez duten langileei. Langile horiei formula honen arabera kalkulatuko zaie Aste Santuko eta Gabonetako baimenetako egun kopurua:

	<p>Lehen sei hileetako egun naturalen kop. – Lehenengo seihilekoan lan egin gabeko egun kop. (norberaren gaien ziozko liz. / ikasketetarako baimena / laneratze-eguna / eszedentziak / kontratuaren amaiera / etab.)</p>			
Aste Santuko txandako egunen kop.=	-----	X	3	edo 4 (egutegiaren arabera)
	-----			
	Lehen sei hileetako egun naturalen kop.			

	<p>Bigarren seihilekoak dituen egun naturalen kop. – Bigarren seihilekoan lan egin gabeko egun kop. (norberaren gaien ziozko liz. / ikasketetarako baimena / laneratze-eguna / eszedentziak / kontratuaren amaiera / etab.)</p>			
Gabonetako txandako egunen kop.=	-----	X	3	edo 4 (egutegiaren arabera)
	-----			
	Bigarren seihileko egun naturalen kop.			

Ateratzen den egun kopuruaren zatiki hamartarra 5 edo hortik gorakoa bada, handiagora biribilduko da; txikiagoa bada, ordea, txikiagoa biribilduko da.



### 2.3.2 – Aldi baterako lan-harremana duten langileak

- Bizkaiko Foru Aldundiarekin aldi baterako lan-harremana duten langileek dagokien zati proportzionala hartuko dute plantilako langileei urte natural bakoitzeko dagozkien Aste Santuko eta Gabonetako baimenetako egunetatik.

Aurreko atalean adierazitako irizpidearekin bat, aldi baterako lan-kontratua duten langileek **“egutegiko baimena”** hartzeko eskubidea izango dute. Baimen horren barruan honako bi kontzeptu hauek sartzen dira:

- \* Kalkulaturiko Aste Santuko baimen-egunak
- \* Kalkulaturiko Gabonetako baimen-egunak

**Egutegiko baimenari dagokion egun kopurua** kalkulatzeko, aurreko bi kontzeptuei dagozkien egunak batuko dira. Ateratzen den egun kopuruaren zatiki hamartarra 5 edo hortik gorakoa bada, handiagora biribilduko da; txikiagoa bada, ordea, txikiagoa biribilduko da.

		Kontratuaren egun kop. lehen sei hilekoan			
Aste Santuko egunen kop.=	txandako	-----	X	4	
		-----			
		Lehen sei hileetako egun naturalen kop.			

		Kontratuaren egun kop. bigarren sei hilekoan			
Gabonetako egunen kop.=	txandako	-----	X	4	
		-----			
		Bigarren sei hileko egun naturalen kop.			

- Egutegiko baimenak hartzeko, onartutako txandetako bat aukeratu behar dute aldi baterako lan-harremana duten langileek, ezarritako eredia erabiliz eta zerbitzuaren beharren arabera.

Hala ere, baimena eman ahal izango zaie aldi baterako langileoi egutegiko baimenak txandetatik kanpo hartzeko; kasu horretan, eskatuko baimenari dagozkion egun guztiak aldi bakar batean hartu beharko dituzte.

### 2.3.3 – Lanaldi murrizketan dauden langileentzako txandak

- Lanaldi murrizketaren ondorioz, aldatu egingo da Gabonetako eta Aste Santuko txandetako egun kopurua dagokion proportzioan.

### 2.3.4 Txandak edo egutegiko baimenak direla-eta behar baino egun libre gehiago hartzea

Kontzeptu horiek direla-eta urtean dagozkien egunak baino gehiago hartzen dituzten langileei murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.





## 2.4.-ANTZINATASUNA DELA-ETA ZUZEMEN PERTSONALETARAKO BAIMENA

- 2019. URTEA -

Irailaren 11ko 10/2015 Errege Lege Dekretuaren 2. artikulua 2. zenbakiak ezartzen duenaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiko langileek sei hiru-urteko betetzen dituztenean bi egun libre izango dituzte, eta beste egun bat gehituko zaie zortzigarren hiru-urteko aurrera eginiko hiru-urteko bakoitzeko.

Bestalde, arautegi honetako "arazko oporrak hartzeko irizpideak" izeneko 2.2 ataleko 20. puntuan adierazi denez, egun libre horiei antzintasunaren ondoriozko opor-eguna gehituko zaie.

Kontzeptu biak kontuan hartuta, beheko taula honetan jasotzen dira zerbitzuan emandako denbora dela-eta langileek dituzten egun libreak (lanaldiaren murrizketa izan ezik, hori denbora osoko lanaldizat jotzen baita):

• 15 zerbitzu-urte	1 egun libre
• 18 zerbitzu-urte	3 egun libre
• 24 zerbitzu-urte	4 egun libre
• 27 zerbitzu-urte	5 egun libre
• 30 zerbitzu-urte	6 egun libre
• 33 zerbitzu-urte	7 egun libre
• 36 zerbitzu-urte	8 egun libre
• 39 zerbitzu-urte	9 egun libre
• 42 zerbitzu-urte	10 egun libre
• 45 zerbitzu-urte	11 egun libre
• 48 zerbitzu-urte	12 egun libre
• 51 zerbitzu-urte	13 egun libre

Urte osoan lanean ez dauden langileek zerbitzu-prestazioko aldiari dagokion zati proportzionala izango du (lanaldiaren murrizketa izan ezik, hori denbora osoko lanaldizat jotzen baita).

Ateratzen den egun kopuruaren zatiki hamartarra 5 edo hortik gorakoa bada, handiagora biribilduko da; txikiagoa bada, ordea, txikiagoa biribilduko da.

Egun libre horiek 7:30eko eguntzat hartuko dira.

Halaber, egutegi berezietan, halako lanaldien balio teorikoa berariaz jasoko da.



Guztira lortutako egunak beheko taulan adierazitakoaren arabera hartuko dira, egutegi orokorreko modalitate guztien kasuan. Hala hartu ahal izango dira egutegi berezietan ere, baldin eta ematen den zerbitzuren espezifikotasunagatik berariaz ezartzen ez bada egun horiek hartzeko beste araudi bat.

EGUN KOPURUA	NORBERAREN AUKERAKO EGUNAK	BATERA HARTZEKOAK
1	Egun 1	
2	2 egun	
3	3 egun	
4	2 egun	2 egun
5	2 egun	3 egun
6	2 egun	4 egun
7	3 egun	4 egun
8	4 egun	4 egun
9	5 egun	4 egun
10	6 egun	4 egun
11	7 egun	4 egun
12	8 egun	4 egun
13	9 egun	4 egun

Batera hartu nahi diren egun librean eskaerak dagokion foru saileko Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren oniritzia behar dute, ataleko buruak edo zerbitzuko buruak onartu ondoren; hori guztia lehenengo egun librea hartu baino egutegiko hamabost (15) egun lehenago egin behar da.

Norberaren aukerako egun libreak solte hartzeko, nahikoa izango da hiru (3) egun lehenago hartzeko.

Hala ere, epe horietatik kanpo izapidetutako eskaerak onartuko dira, betiere zuzeneko arduradunaren edo arduradunen oniritzia badute. Halako eskaeren tramiteek amaituta egon behar dute oro har ezarritako zurrizte-eparearen barruan, hau da, egun libre bat edo gehiago hartu eta hurrengo hileko hogeita bosta (25) baino lehen.

Kontzeptu hori dela-eta urtean dagozkien egunak baino gehiago hartzen dituzten langileei murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.



## 2.5.-ZUZEMEN PERTSONAL KONPUTAGARRIAK BIDERATZEKO BAIMENA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

- 2019. URTEA -

Enplegatu publikoek, urtean, **hogeita lau (24) orduko baimena –hogeita hamar (30) ordukoa, hiru txandako egutegia dutenentzat**– edo proportzioan dagokiena izango dute zuzemen pertsonalak bideratzeko. Ordu horiek egun osoa edo orduak hartuta erabili ahal izango da, egun dauden irizpideen arabera.

Lanaldi murriztua dutenei ez zaie murriztuko, dagokion proportzioan, kontzeptu hau dela eta dagoen ordu kopurua

Egutegi bereziak dituzten langileek libreki gozatu ahal izango dute baimen hori (dena batera edo banatuta), beren egutegi berezian beste araudirik ezartzen ez bada, behintzat; baina horretarako, **15 egun lehenago** egin behar dute eskaria. Horrez gain, unitate baten barruan ezarrita dagoen lanpostu mota bakoitzean zerbitzua ematen duten maila bereko ohiko langileen % 50ek baino ezingo dute aldi berean baliatu baimen hori.

Kontzeptu hori dela-eta urtean dagozkien orduak baino gehiago hartzen dituzten langileei murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.



## 2.6.-NORBERAREN GAIEN ZIOZKO BAIMENA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK

- 2019. URTEA -

Langileek eskubidea izango dute **norberaren gaien ziozko hiru (3) egun** hartzeko, edo, zerbitzuan emandako denbora laburragoa bada, denbora horri proportzionalki dagokion zatia (lanaldiaren murrizketa izan ezik, hori denbora osoko lanaldizat jotzen baita). Baimen hori egun osoetan hartu behar da –zazpi ordu eta hogeita hamar minutuko lanaldia normalizatuarekin bat (7h eta 30 min)-, baina orduka ere hartu ahal izango da, eta horretarako, zuzemen pertsonal konputagarriak bideratzeko baimenerako ezarritako irizpide berberak aplikatuko dira.

2019. urtean, gainera, norberaren gaietarako hiru (3) egun izango dituzte, hartzeko, edo, zerbitzuan emandako denbora laburragoa bada, denbora horri proportzionalki dagokion zatia::

- Hiru (3) egun, kontzeptu hori dela-eta 2019. urteari dagozkion sei (6) egunak osatzen dituztenak.

Egun horiek egun osoak hartuta erabili behar dira, eta haien balio teorikoa egutegiaren modalitate bakoitzeko opor-egunetarako ezarritakoa izango da. Lanaldia egun osokoa ez bada, proportzionalki murriztuko dira egunok.

Zerbitzua urte osoan ematen ez duten langileen kasuan, egun osoak atera ezean, zatiki hamartarra egun oso bihurtuko da, baldin eta zatiki hamartar hori eta opor-egunen kalkuluaren ondoriozko zatikia batuz unitatea baino gehiago ateratzen bada.

Kontzeptu hori dela-eta urtean dagozkien orduak/egunak baino gehiago hartzen dituzten langileei murrizketa proportzionala egingo zaie soldatan.



## 2.7.-EGUN LIBREA

- 2019. URTEA -

2019. urterako, egun libre bat ezartzen da, apirilaren 30ean edo abenduaren 7an hartzeko izango dena. Dena den, egun horietan antolaketa-arazorik ez sortzeko, aukera egongo da urteko beste edozein unetan hartzeko. Beharrezkoa izango da kasuan kasuko buruaren oniritzia.

Egun osoko lanaldia ez duten langileen kasuan edo urte osoko kontratua ez dutenen kasuan, egun libre honen zati proportzionala arauzko oporren kasuan bezala sortuko da. Beraz, praktikan, sortutakoa opor-egunen kopuruari gehituko zaio, kontzeptu bakarrean, zeina opor-egunetarako baldintzen pean egongo baita. Hori guztia hala izango da, bai lanaldia egutegi orokorraren arabera garatzen duten langileentzat, bai egutegi bereziaren modalitateetako edozeinekin bat dihardutenentzat.